

Ikastola

238

2020ko MAIATZA
aldizkaria.ikastola.eus



IKASTOLAK, PANDEMIA GARAIAN

Elkarrekin eta
elkarlanean ari
gatzaizkio ezohiko
egoera larri honi
erantzuten

**ADIERAZPEN
INSTITUZIONALA**

4. orrialdea

Elkarrekin,
elkarlanean,
erantzunez eta
ekinez.

**ORAIN
ARTEKOA**

10. orrialdea

Egoera berrira
egokitu gara.

**HEMENDIK
AURRERA ZER?**

14. orrialdea

Ikasturte
amaierarako eta
hurrengoaren
hasierarako
gogoetak.

**ALDERDI
EMOZIONALA**

16. orrialdea

Haurrak erdigunean jarrita.

**IKASTOLEN
EKIMENAK**

19. orrialdea

Haurrak erdigunean
jarrita.

TESTIGANTZAK

23. orrialdea

Konfinamendu
egunak, ikastolen
komunitateko
kideen begietatik.

INTERPELAZIOA

32. orrialdea

Elkar hartuta
jokatzeko garaia.

ETORKIZUNA


34. orrialdea

Honetatik guztitik
zer aterako dugu?

**EGITEKE
GERATUTAKOAK**

36. orrialdea

Pandemiak eragotzi
diguna.



Ikastolak, pandemia garaian

Ikastolakide agurgarria.

IKASTOLA aldizkariaren 238. Zenbakia duzu honakoa. Ohi ez bezala jaso duzu, paperean beharrean, digitalki egitea erabaki dugulako, bizi dugun ezohiko egoera honek behartuta. Ohi ez bezalako zenbakia ere bada, monografikoa baita; gai bakarra hautatu dugu gure bizitzak zeharo aldatu dituen pandemia honek ikastolen komunitatean nola eragin digun, beroni aurre egiteko zer bide egin dugun eta aurrera begira zer egingo dugun jorratzeko. IKASTOLA aldizkariaren zenbaki honetarako Aritz Trueba ilustratzaile eta lankideari eskatu dizkiogun marrazkiak erabili ditugu azala eta barneko orrialde zenbait irudiz hornitzeko. Covid 19 koronabirusaren pandemiak gure bizitzak astindu dizkigu, baina, era berean, gure bizitzari buruz gogoeta egiteko ere balio izan digu; gure balioak, gure lehentasunak, orain artekoa eta hemendik aurrerakoa aztertzeko eta haiei buruz hausnartzeko balio izan digu. Hezkuntzari dagokionez ere gogoeta sakona egiteko balio izan digu: hartutako neurriez, haien eraginkortasunaz, aurrera begirakoaz... Garrantzitsuena dena elkarrekin eta elkarlanean egin dugula, elkartasunaren eta auzolanaren bitartez.



ikastolenelkartea

EDITATZAILEA:

EUSKAL HERRIKO IKASTOLAK
IKASTOLEN ETXEA
Errotazar bidea, 126
20018 DONOSTIA
943 44 51 08
aldizkaria@ehi.ikastola.eus
www.aldizkaria.ikastola.eus
@ikastola_aldizk

INPRIMATZAILEA:

GERTU inprimategia
Oñati. Tel.: 943 78 33 09

LEGE-GORDAILUA:
SS 425-2015

TANTA, Elkartasun zozketa hasiera baten 2020ko ekainaren 25ean egitea aurreikusita zegoen. **Covid19ak eragindako egoera dela eta, zozketa eguna atzeratzea egoki ikusi dugu**, txartela nahi duten familia guztietara helduko dela bermatzeko, eta 2020ko ekainaren 25ean egin beharrean, **urriaren 21ean egingo da**, notario aurrean.



EUSKAL HERRIKO IKASTOLEN ALDEKO



TANTA

SALNEURRIA 5€



ELKARREKIN, ELKARLANEAN, ERANTZUNEZ ETA EKINEZ

Prozesu honetatik ahulduta aterako gara esparru batzuetan, baina baita indartuta ere beste batzuetan

Koronabirusak eragindako larrialdi egoera honetan ikastolok jakin dugu ahalik eta ongien erantzuten eta gure hezkuntza proiektua aurrera ateratzen eta babesten. Asko egin dugu eta asko dugu egiteko, elkarrekin eta elkarlanean. Ikasi ere asko ikasi dugu, eta ikasitakoak lagunduko digu aurrera egiten. Hurrengo lerroetan, salbuespen egoera honen gainean Ikastolen Elkarteak landu duen adierazpen instituzionala aurkezten dizuegu.

IKASTOLAKIDE AGURGARRIAK, AURREAN DUZUEN ALDIZKARIAREN ALEA BEREZIA DA, BEREZIA DA BAI FORMAN (ZUENGANA AILEGATZEKO ERA BAKARRA EUSKARRI INFORMATIKO DELAKO) BAI EDUKIETAN ERE, AZKEN BI HILABETE HAUETAN BIZITZEN ARI GAREN EGOERA ZEHARO BALDINTZATZEN ARI DELAKO GURE EGOERA ETA BIZIMODU PERTSONALA ZEIN FAMILIARRA, OROKORKI, ETA GURE ESPARRUARI BEGIRA IKASKUNTZA-PROZESUA ETA IKASLE-IRAKASLE-IKASTOLA-FAMILIA HARREMANA ASKO ALDATU DELAKO EPE HONETAN.

Inoiz ezagutu ez dugun egoera kolektibo zein partikularra bizitzen ari gara, gure bizimoduan aldaketa sakonak eragin dituena. Ez genekien, ez dakigu, nola erantzun behar diogun egoera ezezagun honi, eta bizitzako beste alor askotan bezala, probatuz, neurri ezberdinak esperimentatuz, proba-errorea printzipioa aplikatuz egin beharko diogu aurre, eta hori dena ez bakoitzak bere ziliborrari begira, baizik eta denon artean irtenbideak aplikatuz, talde bezala, herri bezala, bakoitzak aldamenekoei bere eskuetan dagoena eskainiz, eta, beldurrik gabe ere, besteen laguntza behar dugunean hori eskatuz ere. Ziur aski prozesu honetatik ahulduta aterako gara esparru batzuetan, baina baita indartuta ere beste batzuetan. Bizitza horrelakoa da,

ez ditu gure aurreikuspen guztiak betetzen, alde batetik, baina ezta denak zapuzten ere.

Hala ere, zeintzuk dira prozesu honetatik atera ditzakegun ondorio nagusiak?: Gure ustez nagusiak honakoak dira (ordenak ez du garrantzia adierazten, ez baitago faktore bakar bat beste guztien gainetik dagoena).


Gizarteak egoera zailei aurre egiteko (berriro ere) erakutsi duen gaitasuna. Oso gutxi aipatu den gai bat da hau, baina askotan denoi gertatu zaigu munduan zehar gertatzen diren egoera latzen aurrean pentsatu dugula “nola da posible egoera hori jasatea eta, hala ere, aurrera egitea?”. Nork esango liguke orain dela bost hilabete gai izango ginenik (guraso, ikasle, langile, ...) horrelako egoeraren aurrean erantzun egoki eta, kasu askotan, eredugarria erakustea?. Ba bai, gai gara, bere ondorio guztiekin (hau ez da dohain izango), denok ordainduko dugu era batera edo bestera egun-hilabete hauetan pasatzen ari garena, baina GAI GARA ETA IZANGO GARA EGOERA LATZEI AURRE EGITEKO. Ez dezagun ahaztu datu hori, gure autoestimurako balio behar duelako, gure gaitasunak (eta gizarte osorena) ispilua behar du izan.

Beste irakaspenetako bat Informazio eta Komunikazio Teknologien garrantzia da. Egia esanda ikastolok egokituta genituen IKTetara

gure ikasmateria eta jarduteko modua. Ikasmateria digitalak, dispositiboak, ikasleak digitalki konpetenteak... Ikastolen Elkartearen duela urte batzuk egin genuen gure ikasmateria digitalizazioaren aldeko apustua. Erabaki honen oinarrian ikasleen konpetentzia digitala garatzeko helburua zegoen, etorkizuneko gizartearen ezinbestekoa izango den gaitasuna garatzea alegia. Ikasmaterialetan egindako ekarpenak eta ikasleekin era digitalean aurrez egindako lan guztiak bere fruituak eman ditu, salbuespen egoera honi aurre egiteko erraztasunak eskaini ditu: saio lektiboaren garapenerako, ikasle-irakasle arteko harremana mantentzeko, ikasleen egoera pertsonalaren jarraipena egiteko, ikasleen jarraipen akademikorako...

Ez da bakarrik bitarteko teknologikoak genituela, baizik eta teknologia hori erabiltzeko prest geundela harrapatu gaituela egoera honek. Asko (ikaragarri) lagundu digute, bai bakoitzak bere lan profesionala etxetik gauzatzeko momentuan, baita ikasketa prozesuetan ikasturteko dinamika mantendu ahal izateko eta ikasleei faktore humano eta emozionala eskaintzeko, elkar entzun eta ikusi ahal izateko eta, ondorioz, bakoitzaren egoera ezagutzeko. Teknologia berriak ez ohiko egoera honi erantzuteko baliabide bat izan





dira, ezinbestekoak bilakatu diren baliabideak. Dena den, ez dira gauza bera aurrez aurreko saioak eskaintzea teknologia erabiliz eta online irakaskuntza; EHLk eta ikastolok ere egokitzapenak egin behar izan ditugu eta egin beharko ditugu ongi egokitzeko eta une bakoitzerako baliabide eta metodologia egokiak inplementatzeko. Baliabide hauen erabilera arduratsua eta orekatua egin beharraz ere ohartu gara, ikasle zein irakasleek pantaila aurrean pasatzen dituzten ordu kopuruan arreta jarri, ikusmenaren zaintzarako gomendioak eginez... Erabilera arduratsuari dagokionean, ziber-jazarpen egoerak agertu daitezke eta horren aurrean guztion arduraren eta enpatian jartzen dugu indarra. Guztiok daukagu honelako egoerak eman ez daitezken eta jarraitu ez dezaten zaintza eta ekarpena egiteko beharra.

PROZESU BERRIAK IRUDIKATZEKO BALIAGARRI

Hala ere argi dugu teknologiak ez duela inoiz irakaslearen jardun presentziala ordezkatuko; irakaslearen gertutasuna, berotasuna, begirada, umorea, esku-hartzea, zaintza eta ardura, inprobisazioa, harremana... ezin dira era berean eman. Ikaskuntza eta irakaskuntza prozesu berriak irudikatze baliagarria izan behar zaigu gertatutakoa; ordu egien malgutasuna, ikaslearen autonomia eta ar-

dura, ebaluazio hezigarria egiteko tresnak... Asko ikasi dugu azken hilabete luzean, eta guzti horrek gure eguneroko jardunean izan dezakeen eraginean hausnartu behar da. Ikasketa prozesuaren izaera sozialean jartzen dugu fokoa. Pertsonen arteko elkarrekintzaren bitartez, berdin arteko interakzioa sustatuz, erreferente baten laguntza jasoz eta ikasketa lehen pertsonan biziz eta esperimentatuz gertatzen da. Guzti horretarako ezinbestekoa da talde izaera, komunitate bateko kide izatea.


Baina, teknologia berriek beren garrantzia (erlatibizatuta, baina oso garrantzi handikoak) erakutsi badigute ere, garbi utzi digute ere badagoela arrakala soziala, familia eta egoera guztiak ez direla berdinak eta, beti bezala, egoera hauetan zailtasun handiena duten familiak (etxeko egoeragatik, espazioen faltagatik, baliabide faltagatik, behar bereziak dituzten haurrak...) betikoak direla, baliabide gutxien daukatenak eta arrakala sozial handiena jasten dutenak; hori datu objektibo bat da. Aniztasunari erantzuteko ardura izan dugu, eta enpatiaz eta erantzukizunez jokatu dugu. Ikastoletako komunitatea osatzen duten familia guztiak ez dira profil berdinekoak, baliabide teknologikoak, familia elkarbizitza, ikasketa prozesuaren autonomia, zailtasun eta erraztasuna, etxebizitzek

eskaintzen dituzten aukerak eta mugak... Asko dira aniztasunean eragiten duten faktoreak, eta horiek guztiak kontutan hartzen saiatu gara. Ikastoletako zein Ikastolen Elkarte baliabide material, teknologiko eta humanoak aktibatu dira familia eta ikasleei ahalik eta arreta pertsonal eta gertukoena eskaintzeko. Kolektibo honi erantzuten jarraitzeko oraindik zer eginga badagoela jakin badakigu, eta horretan aurrera begira ere jarriko ditugu indarrak.

KOMUNIKATEAREN ERANTZUNA ETA LOTURA

Ezin dugu ahaztu ere ikastola, erakunde bezala, osatzen dugun/duzuen eragile guztien erantzuna eta lotura. Ezinezkoa izango litzateke egoera honi aurre egitea parte guztien kolaboraziorik gabe, bakoitza bere lekutik, baina denon artean eta elkarlanean. Familiak egoera onartuz eta bere aldetik bai seme/alabei laguntza zuzena ematen, baita ikastoletako profesionalekin harreman zuzena eta egokia bideratzen; ikastoletako langileak inoiz egin ez duten lana bideratuz, berehalako formakuntza jaso eta beraien eskuetan zegoen material pedagogikoa egokitzeko egoera berri honetara, baina ez hori bakarrik, baita ikasle eta familiekin harremanak mantentzeko egin duten (egiten ari diren) esfortzu ikaragarria ere.

Teknologia berriak beren garrantzia erakutsi badigute ere, familia egoera guztiak ez dira berdinak eta horregatik aniztasunari erantzuteko ardura izan dugu.



Ikastolen Elkarte Artezkaritza Kontseiluaren bilera, bideo-konferentzia.



Ikastolen Elkarteko zuzendari nagusi Jose Luis Sukia, ETBrako adierazpenak egiten.

Eta, nola ez, ikasleak. Zaila da irudikatzea batez ere adin txikiena duten ikasleen erantzuna, ikaragarria; merezi dute aitorten bat. Ikasgai itzela eman digute, ezin dugu ahaztu beraiek egoeraren pertzepzio propio bat izan dutela eta, hala ere, egoera onartuz eta moldatuz (bakoitzak bere gaitasunaren arabera), erakutsi duten heldutasuna eta autonomia ikaragarria izan da eta egun hauetan beraien ikasketa prozesua aurrera egiteko indar handiaz aritu dira. Ez hori bakarrik, sortzaile, irudimentsu ikusi ditugu etxeko lanetan eta zaintzan eta gauza izugarriak sortzen. Sare sozialak horren lekuko izan dira: ikasturtean zehar denbora faltarengatik egiten ez genituen gauzak egiten eta beste balore eta arlo batzuei tokia ematen beraien bizitzan, gurasoekin denbora asko konpartitzen, dantza-

rako, musikarako, jolaserako, sukaldatzeko, irakurketarako. Ordu horiek altxor baten moduan ikusi beharko genituzke, gure gizartea esku onenetan utziko dugunaren adierazle.

ELKARTASUNA ETA ELKAR LAGUNTZA

Eta bakoitzak bere aldetik ekarpena egin badu ere, denon artean dagoen ekarpen handiena egin dugula pentsatzen dugu: ELKARTASUNA ETA ELKAR LAGUNTZA. Ikastolen ezaugarri nagusienetako bat da hau, eta ez hitzetan, askotan gertatzen den bezala, ekintzetan baizik. Adibide asko daude (aldizkari honetan batzuk ikusteko aukera daukazue) baina gure ustez ereduagarri izan dira ikastoletan eman diren adibide zehatzak: ahal izanez gero ERTEak ez aplikatuz, edota aplikatuz gero langile

horien eskubide eta lan baldintzak mantenduz, ordaindu ezin zuten familiei beka eta laguntza bereziak eskainiz, dispositibo edo konexiorik gabeko familiei (ikastolakoak ez zirenei ere) ikastoletako baliabide guztiak eskainiz, langile batzuen soldaten zati bat beste batzuei laguntzeko jarriz, oihalak eta biserak ikastoletako medioekin ekoiztu, janaria eta instalakuntzak udalen eskuetan jarri

EUSKARA, KONFINAMENDUAN

Pandemiaren aurretik, behin eta berriz ohar-tarazten genuen euskararen normalizazioaren egoera kezkarria zela hezkuntzaren eremuan. Orain egoera hori kezkarriagoa bihurtu da, eta ez bakarrik zenbait ikaslerengan izan duen eragin zuzenagatik, bereziki etxean euskaraz egiteko aukerarik ez dutenengan, baizik eta hezkuntza prozesuan zeri-kusi handia duen eremu batean izan duen eragin gogorragatik ere, euskal kulturaren. "Alerta" egoera honetan, euskalgintzako beste eragile batzuekin batera, Kontseiluaren baitan, euskara behar duen planoan kokatzeko eta gure artean lankidetzan aritzeko ekintza ko-ordinatuak aztertzen ibili gara, Euskaraldiak aktibatu duen etxeko jarreretan eragiteko dinamikarekin bat egiten dugu dagoeneko. Baita euskara entzun gabe denbora luzez egon zitezkeen haurren egoerari aurre egiteko, multimedia aplikazio ugari irekian eta musu truke erabil zituzten Euskal Herriko ikasle guztien eskura jarri genituen, baita gure elkarlana eskaini ere zenbait telebistari programa hezitzaileak euskaraz egiteko. Baina ezin gara gelditu, formula gehiago aurkitu behar ditugu, bakarrik edo beste eragile batzuekin elkarlanean, eus-



< kara etxean ez duten ikasleei euskara eskaintzeko; asko dago jokoan.

ARIKETA KRITIKOA ETA HAUSNARKETA

Euskararen eta euskal kulturaren egoera la-tzarekin batera, hain biziki jasotzen ari ga-rena, ezin dugu mezu hau amaitu, egoera honek ekarri dizkigun beste arrisku batzuk aipatu gabe; izan ere, hezkuntza proiektu gisa, gizarte gisa, ezin izango dugu aurrera jarraitu ezer gertatu ez balitz bezala, eta ari-keta kritiko bat egin beharko dugu egoera hori sortu duten arrazoiei buruz, eta gogoeta, hausnarketa egin, gure ikasleekin ere.

Eta horrela, hau bezalako pandemia baten zergatiei buruz galdetu eta hausnartu be-harko dugu, ingurumenari egiten ari garen kalteari buruz, aztarna ekologikoa nola alda-tzen ari garen barne, teknologiarekiko dugun mendekotasunari buruz, kontsumismoari bu-ruz, bai eta herri gisa erantzuna emateko or-duan izan ditugun gabeziei buruz, gure familia askotan sortu dituen egoera ekonomiko zailei buruz eta gizartearen urruntzeari buruz ere.

Bukatzeko, eta autokonplazentzian erori gabe, ezin dugu utzi aipatu gabe Ikastolen Elkartearen erantzuna talde bezala. Hasie-



Zuzendaritza taldea konfinamendua hasi aurretik

ratik ikastola guztiekin harremanetan jarri gara, ikastoletako erakunde guztiekin eten-gabeko informazio eta kontraste lanak egiten aritu gara, aholkuak edo erantzun bateratuak egon zitezkeen iritzia eztabaidatu eta bide-ratzen, ikastolen arteko komunikazio, espe-rientziak trukatzeko, behar orokor eta bereziei erantzunak eta laguntzak eskaintzen, Alegia ikastolen esanetara eta beharretara es-kaini gara. Harro gaude egindakoarekin, ho-betu zitezkeen, noski, eta arlo horiek ere

identifikatzen ari gara (batzuk zehaztuta dauzkagu jadanik), baina gure ustez agerian geratu da ikastolak bizirik gaudela, erantzuteko gaitasuna dugula eta, ezbairik gabe, ikastoletako erakunde ezberdinen artean ko-munikatzeko eta elkar laguntzeko gaitasuna ere badugula. ikastola bakoitzak taldea eli-katu du eta taldeak ikastola bakoitza elikatu du.



Ikastolen Elkartearen Artezkaritza Kontseiluak ikastola komunitate osoa zoriontzeko egindako bideoaren irudi bat.

3

‘Bitartean, Etxetik Ikasten’

Jaurlaritzak eta EITBk bultzatutako saio berria, ETB3n

Hezkuntza-saio berria dugu ikusgai egunero ETB3n eta eitb.eus-en, "Bitartean, Etxetik Ikasten". Programaren helburua ikasleen hezkuntza-prozesua erraztea izango da, batez ere, etxean euskarri teknologikorik ez duten haurrena. Lehen Hezkuntzako ikasleei zuzendutako edukiak eskainiko dira, batez ere, etapa horretako 1. eta 4. maila bitarteko neska-mutilentzat. Hezkuntza-saio hau euskaraz eskainiko da, eta dagozkien curriculumei lotutako edukiak bilduko ditu.

Era berean, ikasleek beraien galderak, zalantzak edo iradokizunak bidali ahalko dituzte, eta horien erantzunak programan zehar edo hurrengo emankizunetan jasoko dituzte.

Hiru3ko euskarri digitaletan ere ikusgai egongo dira edukiak, adin tarteka banatuta: **webgunean**, **APPan**, **HBBTV** eta **Smart TV** zerbitzuetan, eta **EITB Nahieran**-en



Astelehenetik ostirale, 9:00etatik 12:00etara, ETB3n

Hemen ere ikusgai:

eitb.eus/etxetikikasten



Hiru3 aplikazioa



EGOERA BERRIRA EGOKITU GARA

Koronabirusak eragindako krisia hasi zenetik gaur arte kolektibo bezala hartutako bidea eta egindakoa

Pandemiak goitik behera aldatu du ikastolen egiteko modua, goizetik gauera. Oso denbora gutxian erreakzionatu behar izan dute ikasleen ikasketa prozesuak etenik izan ez zezan. Ikastolen Elkartearen eta ikastolen arteko hartu-emana, koordinazioa eta elkarlana gakoak izan dira hau guzti hau aurrera ateratzeko.

BILERA, PROPOSAMEN ETA ERABAKI BASKO HARTU DITUGU ELKARREKIN OSO EPE LABURREAN, BAINA GUZTIAK BIDE ONETIK JOAN DIRA. Gainera, hartutako erabakien inpaktua neurtu eta beharrezko doikuntzak ere egin dira eta egiten jarraitzen dute. Lerro hauetan etapaz etapa eta etapaz gaindi egin diren urratsak azaltzen ditugu.

HAUR HEZKUNTZA

Kontutan hartuta suertatu den egoera berezi honek adin tarte honetako haurrengan duen

eragin emozionala, haurrekiko gertutasuna eta familiekin harreman estua eta elkarlana bermatzea izan dira ikastoletako erronka eta helburu nagusiak. Horretarako hainbat baliabide eta estrategia landu dituzte: telefono deiak, bilera birtualak, ipuin kontaketa, abesti saioak... haurrek bere erreferentearen irudia eta ahotsa ikusi eta entzun ahal izateko; gurasoei denbora pasatzen laguntzeko zenbait baliabide; gelan landuko liratekeen zenbat gai etxean lantzeko materialak, ideak...

Egoera zail honen aurrean, hIZAN erreferenteen sarea baliatu da ikastolekin harreman zuzena mantendu eta joan etorri horretan elkarrekin eta elkarrengandik ikasteko. Ikastolen Elkarteko zonaldeko arduradunak banan banako elkarrizketak izan dituzte ikastola bakoitzeko erreferentearekin, ikastolaren martxa ezagutu eta izan ditzazketen beharrak jasotzeko. Egoera honetan ikastolak nola antolatu diren jakin nahi izan da, familiekin harreman estu hori nola ari diren zaintzen, ze baliabide jarri dituzten familien eskura eta zein partekatu ditzakegun ikastolen ar-



tean. Ikastolekin banan banako harremanaz aparte eskualdeko mintegiak ere egin dira ikastoletako erreferenteek beraien artean kezkek, zalantzak eta esperientziak partekatzeko. Era berean, Ikastolen Elkartetik ere zenbait baliabide jarri dira beraien eskura.

aHarreman estu hau posible izan da azken urteetan egin den ezagutza sareari esker. Ikastolek asko eskertu dute halako guneak izatea, aholkuak jaso, kezkek partekatu eta esperientziatik ikasteko. Oso ondo baloratu da denen ahalegina.

LEHEN HEZKUNTZA

Lehen Hezkuntzako hasiera zikloari begira, ikastoletako erreferenteekin bideokonferentzien bidez bilerak burutu dira. Bi helburu nagusi zituzten bilera hauek: batetik, irakasleekin harreman zuzena mantentzea orain arte bezala, eta bestetik, ikastola bakoitzak COVID-19 birusaren pandemiaren aurrean hartutako erabakiak eta dituzten beharrak jasotzeko. Aste Santuko oporren ondoren, banan banako elkarrizketak izaten ari dira ikastoletako erreferente guztiekin,

Bilera, proposamen eta erabaki asko hartu ditugu elkarrekin oso epe laburrean, baina guztiak bide onetik joan dira. Gainera, hartutako erabakien inpaktua neurtu eta beharrezko doikuntzak ere egin dira eta egiten jarraitzen dute.

azken hiru hilabeteak hasierako kezkek eta beharrak partekatzeko.

Alderdi emozionala zaintzeak duen garrantzia kontuan hartuz, familiekin harremana bikoiztu egin da: gurasoekin eta umeekin etengabeko komunikazioa lehenetsi da, lasaitasun mezuak emanez, garrantzitsuena zerbait egiteko gogoari eustea eta ondo eta lasai egotea dela transmitituz, familiekin, ikasleekin eta irakasleekin komunikatzeko, gertutik erantzuteko eta bertan izateko bide guztiak zabaldua edukiz eta ikasle- familia batzuetan, beharrak kontuan izanik, telefonoz laguntza eta jarraipen handiagoa eskainiz.

Era berean, baliabide digitalak eskaini ditugu, direla joko aplikazioak, edo irakurketa-ulermena lantzekoak, lan koadernoak, eguneroko jarduna erregistratzeko egunerokoak...

LHko 4, 5 eta 6. mailatarako, aurrez aipatutako jarraipena egiteaz gainera, EKI ikas-material eta lan koaderno digitalak ikastola guztien esku jarri dira, eta orain arte erabiltzen ez zituztenei prestakuntza saioak eman zaizkie.





< KIVA ETXEALDI GARAIAN

Etxealdia ez da aitzakia izan eskola jazarpenari aurrea hartu eta aurre egiteko KiVa programa ez erabiltzeko. Aitzitik, doitu egin da, bereziki ziber eraso aukerei arreta handiagoa jarritz, eta hori aurrera eramateko zenbait iradokizun helaraziz: irakasleak ikasleak erabiltzen ari diren aplikazioei arreta jarritz, familiak ere bai; ikasleei nahiz familiei jazarpen kasu baten aurrean nola jokatu adieraziz; ikasle zaurgarrienei jarraipen bereziak eginez...

BIGARREN HEZKUNTZA

Azken ikasturteetan digitalizazioan egindako urratsak oso baliagarriak izan dira egoerara egokitzeko. Baliabide digital guztiak zerrendatu eta era zabal batean ikastolei eskaintzeko aukerak aztertzea izan zen lehen lana.

Ikastolekin batera ikasle bat dispositibo bat bermatzea izan zen lehen egitekoa. Horretarako, ikastolek dispositiboak ikasle guztiek zituztela bermatu ondoren, konektibitatearen arazoari ekin zion Ikastolen Elkartek. Euskaltelekin hitzarmena egin, eta konektibitatea

lortzeko mifi aparailuak eskuratu ziren, ikastolen beharren arabera, eta aparailu horiek ikastoletan banatu ziren.

Bigarren Hezkuntzarako Ikastolen Elkartek dituen EKI liburu eta koaderno digitalak, bai Ikasguneen bai AlexiaClassroomen eskuratzeko prozesua ere martxan jarri zen.

Erabiltzaile berrientzat material horiek erabiltzeko formazioak eskaini ziren, Ikastolen Elkarteko plataformen oinarritzko ezagutzak jasotzeko. Horrez gain, eskuragarri jarri ziren Bigarren Hezkuntzarako beste hainbat euskarri digital: eleanitz, science...

Azkenik, hezkuntza online bideratzeko interresgarriak ziren hainbat tresnaren formazio saioak bideratu dira. Oso harrera ona izan dute saio hauek, eta irakasle ugarik hartu dute parte.

PRESTAKUNTZA

Ahaztu ezinoko esparru honetan ere egoera berezi honek eragin itzela izan du. Ikasturtean zehar izaten ditugun mintegi eta prestakuntzen ehuneko handi bat modu presentzialean egiten dira, izan Ikastolen Etxean, beste

gune batzuetan edo ikastolan bertan ere. Duen garrantzia kontutan hartuta, erantzuna ere halakoa izan da.

Teknologiak egoera honetan hartu duen lekua eta guzti horrek profesional, ikasle eta familiengan izan duen eragina kontutan hartuta, zenbait prestakuntza antolatu dira. Bideo konferentziak egiteko tresnen inguruan, on-line ikaskuntza plataformen inguruko beste zenbait, digitalizatutako ikasmaterialekin ingurukoak... Honek asko lagundu du egoera berri honetara egokitzen eta aurrera egiten. Esan behar da oso harrera ona izan duela eskaintza honek, bai parte-hartzeri (1.500 lagun orotara, 250 lagun batezbeste) zein balorazioari dagokienez.

Era berean, ikasturte honetan aurreikusita genituen mintegi eta prestakuntzen irakurketa bat egin da modu egoki batetan amaiera emateko.

Bide batez esan, egoera honek aukera berriak ere ekarri dizkigula ikasteko eta familia, profesional eta ikasleei begira prestakuntza, hitzaldi formatuko eskaintza bat, prestatzen ari garela hurrengo hilabeterako. >

LAN ARLOA

Martxoaren 17ko EAEko ikastolen lan hitzarmeneko Mahaian argi adierazi zitzairen sindikatuei bizitzen ari ginen larrialdi egoeraren testuinguruan ziur ginela salbuespen egoerak, besteak beste, ondorio ekonomiko latzak ekarriko zizkiola gizarteari eta, hedaturaz, ikastoloi ere, baina argi genituela zeintzuk ziren Ikastolen Elkartearen lehen-tasunak.

Horietako bat langileen segurtasuna eta osasuna bermatzea zen. Horren baitan, langileei, ahal zen neurrian, etxetik lan egiteko gomendioa zabaldu eta bultzatu genien, beti ere ikastolak "zabalik" izanik familiei eta ikasleei bermatu behar zaien hezkuntza zerbitzua emateko.

Beste lehen-tasunetako bat langileen lanpostuak eta lan baldintzak eta ikastolen egonkortasuna bermatzea zen. Berehala jabetu ginen gure ikasleak konfinamendu egoeran izanik, ezinezko izango zirela ikastolek eskaintzen zituzten zerbitzu gehienak (ga-

rraioa, jangela, txikien zaintza, eskola kanpokoak, ..) eskaintzen jarraitu ahal izatea. Horregatik, zerbitzu horiek bete ezin zituzten langileen kasuan, gutxienez ikasturtea bukatu arte ikastolek guztien lan baldintzak eta kontratuak mantentzea bermatu beharko zituzketela proposatu zen, eta, ondorioz, bizi genuen ezinbesteko kausagatik Aldi baterako Enplegu Erregulazio Espedienterik (ERTE-rik) ez egitea eskatu zitzairen ikastolei, baldin eta ERTEa ez bazen lan baldintzak betetzeko helburuarekin erabiltzen. Labur esanda, zerbitzuak eskaintzea ezinezkoa zen neurrian ikastolek ezingo zituzten zerbitzuetako kuota horiek gurasoei kobratu, eta lan baldintzak mantentzearen erabakiak ikastolaren bati egoera ekonomiko larria ekarriko balio soilik erabiliko zen ERTEa.

Eta esan beharra dugu zerbitzuetako langile hauekiko ikastolek egindako kudeaketarekin, emandako erantzunarekin, pozik gaudela ERTE bidea ezinbestean erabili duten ikastolek soldatak osatzeko konpromisoa hartu dutelako.

AISIOLA BEGIRALE ESKOLA

Aisiola Begirale Eskola egokitu egin dugu. Ikastaroa on line bidez eman ahal izateko homologazio prozesua jarri da martxan Lanbide erakundearen aurrean. Egia da aurretik egindako lanak erraztu egin duela prozesua. Lanbidek onartu egin du aurkeztutakoa, eta horri esker, 450 ikasle bako gehiagok jarraitu ahal izango dute Begirale ikastaroko atal teorikoarekin.

Atal praktikoarekin zer gertatuko den argitzeke dago. Izan ere, momentuz Lanbidek mantendu egiten du 160 orduko modulu praktikoa egiteko bete beharra, eta zalantza dago praktikaldi hauek udan egiterik izango duten, ez baitakigu gaur gaurkoz udalekurik antolatuta ahal izango den, eta zenbat antolatuta ahal izango ditugun.

Ikastolekin batera, ikasle bat dispositibo bat bermatzea izan zen lehen egitekoa. Horrekin batera, konektibitatea bermatu behar zen. Ikastolen Elkartek Mifi aparailuak eskuratu zituen, ikastolen beharren arabera, eta aparailu horiek ikastoletan banatu ziren.



Tel · 943 79 12 30
· 945 21 45 93

IKASTOLEN SUKALDETARAKO SOLUZIO INTEGRALAK

35 urte ikastolen zerbitzura

www.etxe-lan.com

IKASTURTE AMAIERARAKO ETA HURRENGOAREN HASIERARAKO GOGOETAK

Egoera honetatik ikasten ari gara, zailtasunei erantzuten ari gara eta ziur etorkizunean eragina izango duela

Salbuespen egoerak irakaskuntza eta ikaskuntza prozesu berriak diseinatzera behartu gaitu. Zuzendaritza talde eta hezitzaile taldeak buru belarri aritu dira ikasle zein familiei arreta pertsonalizatua eskaini eta zituzten beharrei erantzuteko. Etorkizuneko erronkak bi atal edo epetan kokatzen ditugu: 2019-2020 ikasturteko azken hiruhilekoa eta hurrengo ikasturteetan egin beharreko hausnarketa eta hobekuntza/berrikuntzak.



Ebaluazioaren inguruan azken urteetan lantzen eta zabaltzen aritu garen ideia baloreari jarri nahi dugu. Ebaluazioa ikasturte osora hedatzen den prozesua da, eta ikaslearen erregulazio eta hobekuntza ditu helburu.

AURTENGO IKASTURTEARI, 2019-2020KOARI, BUKAERA EMAN BEHAR DIOGU ETA HORRETARAKO BI ARDATZ EDO BI EGITEKO NAGUSI IZANGO DITUGU: BATETIK, EBALUAZIOA ETA BESTETIK, IKASLEEN EGOERA EMOZIONALA.

Noiz bueltatuko gara? Nola bueltatuko gara? Askotan errepikatzen diren galderak dira. Egia da ezohiko egoera honek galdera asko sortzen dizkigula eta aldi berean erantzun gutxi ematen dituela, horixe izan da azken asteetan behin eta berriz errepikatu dena. Hala ere, bada ikasi dugun zerbait, eta hori bidea denon artean eraikitzea derrigorrezkoa dugula izan da. Horri ekin beharko diogu!

Ebaluazioaren inguruan azken urteetan lantzen eta zabaltzen aritu garen ideia baloreari jarri nahi dugu. Ebaluazioa ikasturte osora hedatzen den prozesua da, eta ikaslearen erregulazio eta hobekuntza ditu helburu. Hala ere, orain arte jarduteko modua doitu behar dugu, eta irizpide orokor batzuk zehaztu beharko dira: zer eta nola ebaluatu behar dugu, ebidentziak nola jasoko dira, behaketa bidez egiten genuen ebaluazioa nola egokitu daiteke... Ebaluazioa prozesu batek ikaslearen errealitate eta garapenean oinarritu behar du. Ideia honetatik abiatuta, ikaslearen hasierako ebaluazioak, ebaluazio hezitzaileak eta ebaluazio ziurtatzaileak osatzen dute ebaluazio prozesu osoa.

Horrez gain, irakasleen profila landu behar dugu; hezitzaileen hezkuntzarako kompetentzia garatu behar dugu ezohiko egoera honetan ahalik eta era egokienean jarduteko. Baliabide digitalen erabileraz gain, saio birtual edo on line irakaskuntza esanguratsu baterako trebatu behar gara. Inoiz baino zailagoa da ikasleentzat saio magistral tradizionalak jarraitzea, eta irakasleentzat ikaslearen arreta erakarri eta mantentzea. Urruneko irakaskuntza eraginkor baterako oinarri metodologikoak ezagutu eta praktikatzea behar ditugu.

Alderdi emozionalak kezkatzen gaitu. Zer nolako eragina izango du honek ume eta gazteengan? Adituen arabera, bizitzen ari garen egoera honek guztiongan eragina

izango du. Haur eta gazteak dira egoera honi aurre egiteko bitarteko gutxien dituztenak eta, ondorioz, kolektibo kaltetuenak izan daitezke. Arreta berezia jarri beharko dugu pertsona hauen egoera psikologiko eta emozionalean, eta behar duten arreta eta laguntza eskaini beharko diegu. Horretarako, profesionalen laguntza ere beharko dugu kasu bat baino gehiagotan, eta, ikastolaren baliabideez gain, Gizarte Zerbitzuak eta Osasun zerbitzuak eskaintzen dituztenak baliatu beharko ditugu.

ZIURGABETASUNA

Ikastolako komunitatea osatzen dugun guztion artean badira egoeraren ziurgabetasuna bereziki pairatzen ari direnak. USE (unibertsitate sartzeko ebaluazio proba) eta Lanbide Heziketara sarbidea duten ikasleak eta hauen familiak kezkatuta daude. Ikasle hauek, etorkizunean burutu nahi dituzten ikasketak egin ahal izateko sartzeko nota baten beharra duten ikasle kasuan bereziki, ezohiko egoera honek urduritasuna eta antsietatea sortzen du.

Ikusmira epe luzeago batera begira jartzen dugunean, argi dugu egoera honetan bizitakoak eragina izan behar duela hurrengo ikasturteetan. Argi dugu aurrez aurreko ikasle eta irakasle arteko elkarrekintza beharrezkoa dela ikaskuntza prozesu esanguratsu baterako. Saio horietan ematen diren harremanak, komunikazio ez berbala, ikasle arteko zein irakasle-ikasle arteko konplizitate eta elkarrekintza, umorea eta arreta pertsonala, gertutasuna eta goxotasuna... nekez gerta daiteke edo ezinezkoa izango da urrutiko ikaskuntza eta irakaskuntza ba-

ten bitartez. Gogoratu, ikastea prozesu soziala dela, hau da, taldean gertatzen dela, eta, ondorioz, pertsona batek beste pertsona batzuekin elkarlanean, elkarrekintzan ikasten duela.

Hala ere, bestelako galdera batzuk sortu zaizkigu edo lehen ere buruan bagenituen ere, oihartzun handiagoa izaten ari dira azken boladan; ohiko eskola antolaketa eta ordutegiak zentzua daukate? Ikaslearen autonomia eta askatasuna hizpide izan behar dira; nola sustatuko ditugu? Ordutegiaren antolaketan zein eragin izango du? Nola islatu daiteke ardura eta autonomiaren lanketa eguneroko jardunean? Poliki-poliki gaitu hauen hausnarketa egin eta erabakiak hartzen joan beharko dugu. Ez da egun batetik bestera egin ahaliko dugun aldaketa bat, urratsez urrats joan beharko dugu, baina egun eza gutzen dugun hezkuntza eredua zalantzan jarri eta eraldaketa prozesuak abiatzeko bidean jarri beharko gintuzke.

Egoera honetatik ikasten ari gara, zailtasunean erantzuten ari gara eta ziur etorkizunean eragina izango duela. Dagoeneko hizpide genituen erronka berriei ekiteko lagungarriak izango dira bizitako momentu honetan egin dako guztiak!.

Ikusmira epe luzeago batera begira jartzen dugunean, argi dugu egoera honetan bizitakoak eragina izan behar duela hurrengo ikasturteetan.



HAURRAK ERDIGUNEAN JARRITA

Familia kohesioa lantzeko eta liskarrak era egokian kudeatzeko ezinbestekoa izango da gure txikienei behar duten kalitatezko arreta eskaintzea, haurrak baitira baliabide gutxien dituztenak eta, ondorioz, honelako egoeretan zaugarrienak.

Edukien transmisioaz eta konpetentzien jabetzeaz gain, emozioen kudeaketa ere lantzen da ikastoletan. Ikasleak etxealdian egonik, etxeetan, familian, emozioen kudeaketa hori lantzea ezinbestekoa da egoera berezi honetan.

GIZARTE EGOERA BEREZI BATEN AURREAN GAUDE, BIZITZEKO EGOERA BERRI ETA EZEZAGUN BATEN AURREAN ALEGIA. HORREK ETXE ETA FAMILIA BESTEKO EGOERA DESBERDIN SORTU DITU ETA EZ OHIKO ELKARBIZITZA EGOERETARA ERAMAN GAITU. BIZIMODU BERRI HORIEN KUDEAKETA, GAINERA, EZ DA BETI ERRAZA IZATEN. Egun batetik bestera gure egunerokoa aldatu behar izan dugu eta honek pertsonengan orokorrean eta haur, gazte eta nerabeengan bereziki, ondorio psikologikoak izan ditzake. Denok ez ditugu modu eta maila berdinean egoerari erantzuteko baliabideak eta tresnak, haurrak dira baliabide gutxien dituztenak eta, ondorioz, honelako egoeretan zaugarrienak. Horregatik guztiagatik, beharrezkoa izango da gure seme-alabekin lotura emozionalak garatzea eta berauei segurtasuna transmititzea.

Gogoan hartu behar dugu etxean gauden guztiok gure egunerokoari erantzun behar

diogula bakoitzak dituen egitekoen ardura hartuz. Horrez gain, etxebizitzak dituen mugak kontutan izan behar ditugu eta baita egun osoko elkarbizitzak sortu ditzakeen gatazka egoerek ere higadura emozional garrantzitsua sortu dezaketela ere. Horiek guztiak kudeatzeko emozionalki erregulatzea ezinbestekoa izango zaigu, baina oinarrizko elkarbizitza baterako jarraibideak ere zehaztu beharko ditugu. Elkarbizitza jarraibideak aipatu ditugu ez arauak, ezohiko egoera honen aurrean malgutasuna eta afektuaren garrantzia azpimarratzen baititugu. Guztiok sufritzen dugu egoera berdina, baina haur eta txikiak dira egoera ulertzeko gaitasun gutxien dutenak eta egoerak eragindako behar gehien izango dutenak. Hori horrela izanik, haurrak erdigunean jartzeko beharra dago, entzun egin behar diegu eta ulertu egin behar ditugu. Beraiekin jardun, jolastu, irakurri... egin behar dugu, familia kohesioa lantzeko eta liskarrak era egokian kudeatzeko ezinbestekoa izango da gure txikienei behar duten kalitatezko arreta eskaintzea.

Honetarako ezinbestekoa izango da helduak bere egoera emozionalari erreparatzea. Haur eta nerabeekin ondo egoteko lehenengo helduak berak egon behar du ondo. Frustrazioak eta haserrealdiak kudeatu beharko ditugu etxeko egoera sozial eta emozional on eta orekatu baterako. Familian eta bikotearekin ondo egoteko ezinbestekoa da norbere buruarekin bakean egotea, eta horretarako momentu pertsonalak guztiok behar ditugu, gure buruarekin egon eta barrura begiratzeko egunak dira. Momentu horiek aurkitzea eta adostea elkarbizitzarako garrantzitsua izango da. Bide batez, gogoratu yoga, mindfulness eta antzeko ekimenak horretarako lagungarriak izan daitezkeela. Aspektu hauetan laguntza eskaintzeko psikologo eta profesional sareak antolatu dira eta horrez gain, sarean hitzaldi eta tailer interesgarriak ere aurkitu daitezke.



EROSKI

zurekin

EROSKI ARRASATE
Musakola auzoa / 20500 ARRASATE-MONDRAGON
943 711 030

EROSKI GARBERA / Garbera Merkatal zentroa
Altza auzoa / 20015 DONOSTIA
943 394 875

NERABE ETA GAZTETXOAK

Nerabe eta gaztetxoei ere zuzenean eragiten die egoerak. Bizitzako prozesu zail bezain eder bat pasatzen ari dira, familiaren nukleotik atera eta taldean, lagunartean bizitzen ikasten ari dira. Lagunarteak garrantzi eta pisu handia duen prozesua bizitzen ari dira. Eta bat batean eta aurretik hausnarketa egiteko denborarik gabe etxetik atera ezinik geratu dira, lagunekin aurrez aurre egon ezinik, beraien maitea(k) besarkatu ezinik... Guzti honek eragin handia izan dezake beraien egoera psikologiko eta emozionalean. Hasierako berritasunak dakarren ezjakintasuna eta euforia pasatu ostean, errealtatearekin topo egin dute. Askok luzatzen ari den errealtatea gainera. Onartu behar da garai digitalean jaiotako pertsonak direla eta beraien eta helduen harremanetarako erak ez direla berdinak. Aspektu honetan abantaila izan dezakete; izan ere, mundu digitalean murgilduta bizi dira eta harreman digitalak izaten oso ohituta daude.

Hala ere, gure harreman sarea ezin dugu gailu digitalen erabileran bakarrik oinarritu; oreka aurkitu behar da, eta beraiekin batera adostasunera iritsi behar gara. Horrez gain, erabilera arduratsua egiten lagundu eta erakutsi behar diegu; gu gara beraientzat erreferenteak hein handi batean eta guri dago-kigu gure jokaeraren bitartez adostutako horiek betetzea lehenengo. Gailurik gabeko momentuak ere zehaztu behar ditugu bestelakoak egiteko: familian jolastu, hitz egin, harremandu, ekintzak egin, irakurri, sukaldatu... Askok dira egin daitezkeenak eta egunean tarte bat horiei eskaintzea oso aberatsa izango da familia elkarbizitzarako eta gure arteko komunikaziorako.

Horrez gain, informazio gehiegikeria bizitzen ari gara eta kontu handiz kudeatu beharreko gaia da. Haur, gazte eta nerabeak behatzaile ezin hobeak dira baina ikusi, entzun, bizi eta sentitzen duten horren interpretazio okerrak ere egiten dituzte. Adi beraz gaiaren inguruan jasotzen dugun informazioarekin

Nerabe eta gaztetxoei ere zuzenean eragiten die egoerak. Bizitzako prozesu zail bezain eder bat pasatzen ari dira, familiaren nukleotik atera eta taldean, lagunartean bizitzen ikasten ari dira. Eta bat batean eta aurretik hausnarketa egiteko denborarik gabe etxetik atera ezinik geratu dira.

>





ETXEALDI GARAIRAKO IDEIA BATZUK

Zer egin dezakegu gure seme-alabekin egoera ulertu eta era egokiagoan bizi dezaten? Jarraian hainbat ideia zehazten

1. Beraiek ulertzeko moduan egoera azaldu.
2. Egun hauetan etxean egotea beharrezkoa dela komunikatu, epe mugatu baterako izango dela argitu eta ondoren, pausoz pauso izango bada ere, egoera normalizatuko dela adierazi.
3. Guztion emozioei arreta jarri, eta horien inguruan hitz egin. Litekeena da momentu batzuetan beldurra, tristura, haserrea eta bestelako emozio ezatseginak sentitzea, eta hauen inguruan ere hitz egin behar da.

ELKARTASUN BETE IKASTOLAK

Elkartasuna ikastolen izatearen barnean txertatua dago, eta ezohiko egoera honetan nabarmendu egin da

Ikastola komunitatearen barneari begira nahiz kanpora begira, elkartasun adierazpen ugari eta askotarikoak egin dituzte ikastolek Covid 19 birusaren pandemiak eragin duen ezohiko egoera honetan. Hurrengo lerroetan elkartasun adierazpen horietako batzuk bildu ditugu, ez denak ordea, asko baitira.



Harrobia ikastolako ikasleek Marketin Solidarioa jarri dute abian, Bizkaiko enpresa txiki eta ertainei krisitik irteten laguntzeko.

IKASTOLEN EKIMENAK

< EZOHIKO EGOERAN, BAINA OHIKO BIDETIK, ELKARTASUNETIK ETA AUZOLANETIK JO DUTE IKASTOLEK PANDEMIAK SORTURIKO LARRIALDIARI ERANTZUTEKO. Etxetik hasita heldu diote elkartasunari, etxealdiaren ondorioz aurreikusten ziren askotariko egoerei erantzuteko asmoz.

Egoera horietako bat laborala da. Ikastolekako zerbitzuetako langileen eta 0-2 urteko hezitzaileen lan baldintzei eta kontratuei eusteko ahalegin handia egin dute ikastolek, eta zenbaitetan lanaldiaren behin-behineko etena egin behar izan duten arren, haien soldata osoa ziurtatzeko ikastolek jarri dute dirua.

Kuoten gaian ere elkartasuna izan da ikastolen ezaugarria. Doitu egin dituzte, denen artean adostu, guraso asko kuotak osorik ordaintzeko erabakia hartu dute ikastolei eragingo zien galerari aurre egiteko... askotariko formulak erabili dituzte, baina guz-


tietan ikusi da elkartasuna. Bide batez, familien egoera ekonomikoa zalantzan jarri den kasuetan, barne beka sistemak zabaltzeko aukerari heldu diote ikastola askok.

Nabarmentzekoa da, adibidez, **Laskorain ikastolako** langileen erabakia. Haur Eskolan zuloa sortuko dela, eta hileroko funtzionamendu laguntza ordaindu ezin dezaketen familien kopurua handitzea aurreikusten dela kontuan hartuta, ikastolako langileek urtarrietik abuztura bitarteko beraien soldataren %2a ikastolako elkartasun kutxara ematea proposatu dute. Horrekin, Haur Eskolako zuloa estalzeaz gain, ikastolako-barne bekarako dirua bideratuko da, eta aldi berean, langileen kontratuak mantenduko dira.


Egoera zaugarrian diren familiei begira, gainera, ikastolek eta Ikastolen Elkarteak MiFi gailuak eta Interneterako sarbidea ziurtatu diete berrehun familiari, doan.



Osasun langileentzako biserak egin dituzte 3D inprimagailuak erabiliz Ariznendi, Azkué, Lizarra, Txorierri eta San Benito ikastolako kideak eta Ikastolen Elkarteko kide batek.



Laser inprimagailua





Seaskako ikastolek atea irekita eduki dituzte osasun langileen haurrak hartzeko. Irudian, haur horietako batzuk, Kanboko Errobi ikastolako gela batean.

Modu honetara, ikasle guztiengana heltzeko eta haien ikasketa prozesuak aurrera jarraitzeko helburuak bete dituzte.

ORDENAGAILUAK BESTE IKASTETXE BATZUETAKO IKASLEENTZAT

Ikastola komunitateari begira bezala, kanpora begira ere elkartasun adierazpen handiak egin dituzte ikastolek. Villabonan, esaterako, **Zubimusu ikastolak** hamabost ordenagailu eramangarri utzi dizkiete beste ikastetxe bateko ikasleentzat, euren ikasketa prozesua aurrera eramateko aukera izan dezaten. Udalak egin zuen eskaria, eta Zubimusu ikastolak berehala erantzun zion deia.

BISERAK 3D INPRIMAGAILUZ

Gizartean egindako deia erantzunez, hainbat ikastolatan 3D inprimagailuak erabiliz biserak egin dituzte osasun langileentzako. Horretan aritu dira, besteak beste, Lazkaoko **San Benito** ikastola, Arrasateko **Arizmendi**, Lekeitioko **Azkue ikastola**, Lizarrako **ikastola**, Derioko **Txorierrri Lanbide Ikastola**, eta **Ikastolen Elkarteko** langile bat. Batzuk ikasleekin, beste batzuek gurasoekin elkarlanean eta beste batzuk beste erakunderen batekin, guztiak hornitu dituzte euren eskualdeetako ospitale eta anbulatorioak,

hain justu beharrik handiena zuten garaian, eta osasun langileen esker aitortza ere jaso dute.

Ospitale, anbulatorio, zahar etxe eta antzekoei ikastoletako materiala igorri zaie herri askotan. **Erentzun ikastolak**, esaterako, inauterietako oihalak eman ditu Vianako etxez etxeko laguntza langile eta zahar etxeetako langileentzat. Vianako emakume talde batek josi dituzte amantalak Erentzun ikastolak emandako oihalekin. Santurtziko **Bihotz Gaztea ikastolak**, berriz, polipropilenoazko oihala lortu zuen Bizkaiko ospitaleetarako batak diseinatzeko. Material banaketa DYA eta taxi zerbitzuarekin ondo antolatu zuten, eta gurasoen artean mezua zabaldu zuten jostunak bilatzeko; eta horretan ari dira. Ikasleek, berriz, gutunak idatzi dituzte ospitaleetara animoak bidaltzeko.

Bermeoko **Eleizalde ikastolak**, berriz, 2.800 eskularru bidali zituen Galdakaoko ospitalera (Bermeoko asiloan, anbulatorioan eta Gernikako ospitalean galdetu eta gero). Bilboko **Urretxindorra ikastolak** ere eskularruak bidali ditu Usansoloko ospitalera. Horrez gain, ikastolan zituzten elikagaiak Gurutze Gorriari eman dizkio. Tuterako **Argia Ikastolak** ere bere jantokiko elikagai

ekologikoak (arrautzak, fruta eta jogurtak) banatu ditu, Villa Javier fundazioak egunero zerbitzen dituen otorduetan aprobetxatu ditzan.

HERRIARI LAGUNTZEN

Lekeition, Gurutze Gorria eta Lekittozaindu taldea beharra duten familientzako elikagaiak banatzen ari dira, eta, horretarako Azkue ikastolak eraikin bat erabiltzen utzi die. Behar gehien duten familiak ere hara joaten dira elikagaien bila.

Era berean, Azkue ikastolak Udalarekin batera, behar izan gehien dituzten familien identifikazioan lagundu du eta bere esku zegoen materiala banatu du familia horien artean. Eguzkibegi ikastolak ere bere instalazioak Udalaren esku jarri ditu edozein beharrez aurre egiteko.

IKASTOLAK IREKITA OSASUN LANGILEEN HAURENTZAT

Frantziako Gobernuak ikastetxeak irekita egoteko agindu zuen osasun langileen haurrak hartzeko, baina adierazi zuen zaintzaile eta irakasle boluntarioak izango zirela haur horiekin arituko zirenak.

Seaskako ikastoletan ez da boluntariorik falta izan. Hala, ikastolak irekita eduki di-



IKASTOLEN EKIMENAK

< tuzte haur horiek hartzeko. Ikastola ba-koitza guraso osasun langileekin harremanetan jarri zen haien premiak ezagutzeko. Esan beharrik ez dago, gurasoak umeak etxean edukitzen ahalegindu direla, eta ikastolara soilik ezin zutenean bidali dituztela. Ikastoletan ahal duten bezala moldatu behar izan dute haurren eta irakasleen osasunari lehentasuna emanez, eta horretarako neurriak eta baliabideak euren kabuz bilatuz, Frantziako Gobernuak itxialdia hasi eta lau astera bidali baitzituen maskarak.

EUSKARA ERREFORTZURAKO EKIMENA

Bizitzen ari garen egoera berezi honetan, jakina da guraso batzuk zailtasun nabariak dituztela seme alabei laguntzeko. Euskara menperatzen ez duten gurasoek ezin diete seme-alabei nahi bezainbeste lagundu ezta, bestea beste, osasun munduan lanean ari diren gurasoek ere.

Horri begira, Donostiako **Axular Lizeoak** bere ikasle ohiekin gogoratu ziren, Axularlarkide sarearekin. Astean bi orduz edo ordubetez boluntario gisa laguntzen diete behar duten ikasleei, LH 5etik Batxilergora arteko etapetan. Kontaktua telefonoz, bideo-bileraz, txat moduko aplikazioaz egiten da. Ekimenak oso erantzun ona jaso du eta 20 ikasle ari dira parte hartzen.

PROIEKTU ERREAL ETA SOLIDARIO BAT

Ikasleen ekimenak ere badira. Oso aipagarria da, esatateko, Bilboko **Harrobia Ikastolako** Marketin eta Publizitateko zikloko ikasleek abian jarri duten Marketin solidario ekimena, COVID-19aren aurrean kaltetu diren Bizkaiko enpresa txiki eta ertainei laguntzeko.

Harrobiako ikasleak COVID-19aren osasun emergentzia egoerarekin arduratuta daude, eta, ekimen honen bitartez, beraiek

ere hondar alea jarri nahi izan dute. Ekimen honen helburua egunotako egoera dela-eta Bizkaian kaltetuak izan diren autonomo, enpresa txiki eta ertainentzako doako marketin eta publizitate zerbitzua eskaintzea da.

Publizitate solidarioaren agentziak hainbat zerbitzu eskaintzen ditu, enpresen beharriaren arabera. Diseinu grafikoa (marka eraikitzea, logotipoak eta beste irudi korporatiboak), marketin digitala (sare sozialen diseinua, web diseinua, SEO, Facebook Ads ...), merkatarien ikerketa (benchmarking, mystery shopper, datuen analisia ...), ekitaldien antolakuntza, kanpainak publizitateak eta marketin digitaleko ikastaroak.

Proiektu erreal eta solidario honek ilusioz bete ditu ikasleak.



Lekeitiko Azkue ikastolako bere eraijin bat utzi die beharriaren handiena duten familiei janaria banatzeko. Tuterako Argia ikastolako elikagai ekologikoak doan eman dizkio Villa Javier fundazioari.

KONFINAMENDU EGUNAK, IKASTOLEN KOMUNITATEKO KIDEEEN BEGIETATIK

Normaltasunera itzultzeko irrikan, baina ezohiko egoerara egokituta bizitzen ari dira ikastolen komunitateko kideak

Komunitate zabala eta askotarikoa osatzen dute ikastoletako kideek. Nork bere modura bizi du Covid 19 birusak eragindako egoera berezia, eta hor ere askotarikoak dira adibideak. Denok, halere, normaltasunera itzuliko garenaren konbentzimendua dute. Testigantza batzuk bildu ditugu, eta gure komunitatearen lagin bat ekarri dugu orriotara.

IKASLEAK IKASTOLETARA JOATERIK KEZ DUTENEZ, IKASTOLA JOAN DA IKASLEEN ETXEETARA. DENBORA OSO LABURREAN EGIN BEHAR IZAN DA EGOKITZAPENA, BURUHAUSTE FRANKOREKIN, DENERA IRITSI NAHIZ ETA AHALIK ETA AZKARREN GAINERA. Ez da batere erraza izan, erabaki asko hartu behar izan dira denbora oso laburrean, eta erabaki gogor zenbait ere bai. Erabaki horien zurrunbiloaren erdigunean egon dira zuzendariak.

“Konfinamenduak agindu aurretik iristen ari zitzazkigun mezuekin emergentzia mahai bat antolatu genuen 22 pertsonaz osatua, eta horrek laguntza handia eman zigun erabakiak hartzeko. Ikastolak oso ondo erantzun zuen, irakasle, langile familia eta ikasleentz aldetik. Urduritasunez, presio askorekin eta egun gutxitan denontzat berria zen egoera batean aritu behar genuela aurreikusiz”, esan digu **Aitor Iriondok, Axular Lizeoko** (Donostia) zuzendariak. Uriondoren kasuan, gainera, pneumoniaz gaixotu zen itxialdia baino egun batzuk lehenago, eta osatu gabe zegoela aritu behar izan zuen. Pneumonia koronabirusaren ondorio izan zen ez daki, ez diote testik egin, baina, egun, guztiz osatuta dago.

Eguzkibegi ikastolako (Galdakao) zuzendari **Itsaso Etxebarria** ere antzera mintzatu zaigu: “Bi hilabete hauetan egoera berrira egokitu behar izan dugu eta egokitu gara. Gaitasuna eduki dugu, eta gauza asko izan dira. Hezkuntzari begira, etapa bakoitza desberdina den heinean egokitzapen gaitasuna

ere desberdina izan da. DBHn eta LH 4, 5 eta 6. mailetan digitalean beste ohitura batzuk bereganatuta zituzten ikasleek, eta beste mailetan apurtxo bat gehiago kostatu zaigu etxetik lan egitea, baina lortu da. Irakasleentz aldetik prestasun handia egon da familiekin eta ikasleekin harremanetan jar-

>



Aitor Iriondo

< tzeko eta dena aurrera ateratzeko”.

Iparraldean, ikastolen atea ez dira erabat itxita egon. Osasun langileen seme-alabak zaintzeko boluntario lanetan aritu dira. Kanboko **Errobi ikastolan**, esaterako, egunero hiru-lau haur zaindu dituzte, bertako zortzi irakasleak txandaka lanean arituz, eta guraso batek emandako maskarak erabiliz, Frantziako Gobernuak ez baitzizkien eman. Gainera, asteazkenetan klaserik izaten ez badute ere, ikastola irekirik eduki dute hau horientzako. Gainerako haurrak, dena den, ez dituzte ahaztu “Saiatu gara harremanak zaintzen. Astean behin deitzen ditugu eta

“Saiatu gara harremanak zaintzen. Astean behin deitzen ditugu eta gurasoak ere bai. Guk handiekin bideokonferentzia egiten dugu astean behin. Gelaka arratsalde pasa egiten dugu kantuan, txisteak kontatuz...”
JOANES GARCIA Errobi ikastolako zuzendaria



Joanes Garcia

“Teknologikoki egindako lanak eta aurretik martxan jarritako prozedura eta prozesu desberdinak benetan lagungarriak izan dira. Feed back-ak ugari egin ditugu, kontsultatzeko familiak, langileak, ikasleak... egia esan erantzuna bikaina izan da”
AITOR URIONDO Axular Lizeoko zuzendaria

gurasoak ere bai. Guk handiekin bideokonferentzia egiten dugu astean behin. Gelaka arratsalde pasa egiten dugu kantuan, txisteak kontatuz, eta abar. Zailtasunetan diren ikasleak laguntzeko ere deitzen ditugu. Lanak posta elektronikoz bidaltzen dizkiegu, eta paperean ere bai. Astero karpeta batzuk prestatzen ditugu eta gurasoak etortzen dira erosketak egiteko irteten direnean”, azaldu digu **Joanes Garcia** zuzendariak.

Ikasleengana iristeko eta haien hezkuntza prozesuak etenik izan ez dezan neurriak hartuta, bestelako erabaki batzuk ere hartu behar izan dituzte. Aitor Uriondo: “Ikastolaren helburu nagusia ikasleak dira, garbi zegoen hezkuntza zerbitzuak zuela lehentasuna, baina gero ere baziren beste erronka potolo batzuk: zerbitzuekin zer egin, arlo administratiboan, ekonomikoan zer nolako erabakiak hartu... kontrasteak eta buruhauste asko egon dira erabakiak hartzeko orduan, ikusita gainera luze joan zitekeela, eta ongi neurtu beharko genituela. Guk zuzenean ez dugu behin-behineko lanaldiaren eteterik egin, baina gurekin lanean dabiltzan kanpoko enpresetako langileak gureak bezala ditugu, eta haiei eragin die”.

Eguzkibegi eta Errobi ikastoletan egin behar izan dute. “Halabeharrez, beste biderik ez genuen, baina soldata osorik jasoko dute, Gobernuak ematen ez dien zatia ikastolak bere gain hartu duelako”, azaldu digu Eguzkibegiko zuzendariak. “Maiatzaren erdian berriro ikastolak ireki behar ditugula esan digute; guk argi dugu langile gabe ezingo ditugula ireki, eta, beraz, itzuli egin beharko dute”, gaineratu du Errobi ikastolako zuzendariak.

Hiru zuzendariak bat datoz: konfinamendua alderdirik gogorrena harremanena izan da, kontaktu fisikorik gabe, aurrez aurrekorik gabe lan egin behar izana. “Denok, ikasleek, irakasleek, gurasoek, kontaktu fisikoa eta egunerokotasunaren harremanaren falta sentitu dugu”, kasik hitz berak erabiliz azaltzen dute hiru zuzendariak. “Baina konturatu gara, azken hamarkadan egin dugun lanak eta aurrez antolatutakoak abantaila eman digula. Teknologikoki egindako lanak eta aurretik martxan jarritako prozedura eta prozesu desberdinak benetan lagungarriak izan dira. Feed back-ak ugari egin ditugu, kontsultatzeko familiak, langileak, ikasleak... egia esan erantzuna bikaina izan da eta egon diren ekarpenak ere oso onak izan dira eta erabilgarriak”, erantsi du Axular Lizeoko zuzendariak.

Etengabeko komunikazio hori Eguzkibegi eta Errobi ikastoletako zuzendariak ere az-

pimarratu dute. “Tutoreek mantentzen dute harreman zuzena bideokonferentziak, bakkarkako deiak, posta elektronikoko bitartez, oso harreman estua eta ia egunero mantentzen dugu harreman hori. Gurasoekin ere berdin. Galdetegiak egin dizkiegu zuzendaritzatik, eta etapa desberdinetatik irakasleek beraiek ere egin diete balorazio eskaerak. Orokorrean balorazioa ona izan da, egin den lana baloratzen da”, Itsaso Etxebarriaren ustez.

“Oraintxe bertan garrantzi asko ematen diogu egunerokoari, harremanari, eta ikusten ari gara horixe dela gehien eskatzen ari garena denok, ikasleek, irakasleek eta gurasoek ere. Konturatu gara gure arteko harremanek zelako garrantzia duten guretzat”.
ITSASO ETXEBARRIA Eguzkibegi ikastolako zuzendaria



“Harro egoteko modukoa izaten ari da komunitate osoaren erantzuna, bikaina. Egoera hau guztia kontuan izanda, hamarrekoa merezi dute!”. **KATALIN LARREA** Abusu ikastolako Lehen Hezkuntzako irakaslea

Katalin Larrea



URRUNTASUNETIK, INOIZ BAINO GERTUAGO EGON NAHI

Zuzendariak kudeaketan buru-belarri ekinen, eta irakasleak, berriz, beren ikasleekin eta familiarekin lanean. **Katalin Larrea** Lehen Hezkuntzan dabil Bilboko **Abusu ikastolan**. Bi fase bereizi zituzten hasieratik; Aste Santua bitartekoa, eta oporren bueltakoa. “Lehen Hezkuntza bi multzotan zatitu genuen 1, 2, 3 eta 4. maila bitartekoa, eta 5 eta 6. mailak. Erabaki genuen lehenik eta behin alderdi emozionalari ematea lehentasuna eta familia eta ikasleen behar desberdinak detektatu eta erantzuteari. Familia bakoitzarekin harremanetan jarri ginen, nola ziren jakiteko, gaixorik bazituzten, lana eta etxea uztartzeari begira nola ziren, eta gailuei begira zer behar zuten, gure proposamena egoera horietara moldatzeko”.

Txomin Elorza Gasteizko **Armentia ikastolako** irakaslea da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan. Ikastola hau izan zen ixten lehenbizikoa, Arabar Errioxakoekin batera. “Hasiera batean, bi asteko kontua izan zitekeela esan zuten; segituan ohartu ginen, or-

“Lehen bi ebaluazioak eginda daude, eta hirugarren hau egiteko informazioa badugu: guk ikusten ditugu zeintzuk ari diren lanean, zeintzuk ez... ebaluatzeko baliabideak eta informazio asko daukagu” **TXOMIN ELORZA** Armentia ikastolako DBHko irakaslea

Oporraldia aprobetxatu dute ikastoletan, ikasturte amaiera planifikatzeko, egin den lana baloratzeko eta egin beharreko doikuntzak egiteko. Ziurgabetasun handia dago. Iparraldean maiatzaren erdialdera ikastolara itzuliko ei dira umeak, baina boluntarioa izango da, eta guraso batzuek jada esan diete ez dituztela euren umeak ikastolara bidaliko. Ziurgabetasuna da, baita ere, nola antolatu hori dena, kutsatzeko arriskurik gabe. Joanes Garciak azaldu digu ez dakitela zehazki nola egin itzulera. “Gure lehentasuna ikasle, irakasle eta langileen osasuna da, eta hori ziurtatu behar da lehenbizi. Testak egitea, maskarak erabiltzea... Ezinbestekoa izango da psikosia gutxitzeko. Gainera, guraso asko ez daude prest umeak ikastolara itzultzeko. Egokituko gara, baina zein neurritaraino ez dakigu”.

“Itzulera? Ez dakigu nolakoa izango den. Aurreikusten dugu, DBH 4koak itzuliko direla. Kezka hori dugu, eta DBHko irakasleekin ari gara lanean. Erabakia ez dugu oraindik hartu. Ideia batzuk baditugu, eta espero dugu Ikastolen Elkartetik ere jasoko ditugula aholkuak. Gainerako ikasleak bueltatzea oso zaila ikusten dut. Bueltatzekotan LH6koak itzuliko dira. Baina txikitxoak ez”, dio Eguzkibegiko zuzendariak.

Axularren, Batxilergoko ikasleen itzulera ere espero dute, nola izango den argi ez daukaten arren, eta kezka eta zalantza asko diren arren. Halere, itzuli zeintzuk itzuliko diren gorabehera, erronka ikasle guztien ebaluazioan kokatu du Uriartek: “Erronka nagusia dugu ebaluazioaren inguruan, eta horretan ibili gara eta bagabiltza proposamen desberdinak mahai gainean jartzen”.

Itsaso Etxebarriari galdetu diogu zer ikasgai aterako dugun konfinamendu honetatik. “Lehenbizikoa da, aterako garela hemendik. Oraintxe bertan garrantzi asko ematen diogu egunerokoari, harremanari, eta ikusten ari gara horixe dela gehien eskatzen ari garena denok, ikasleek, irakasleek eta gurasoek ere. Konturatu gara gure arteko harremanek zelako garrantzia duten guretzat”.

dea, luze joko zuela. Ia bi hilabete daramatzagu eta gogorra izaten ari da. Lan karga handia eta koordinazio lan handia eskatu digu. Egoera berria da, ahalik eta ongien ari gara, baina ez dakigu guztiz ongi ari garen. Indar handiz hasi gara, dena den, oporren bueltan ere”.

Bien kasuan, distantziatik ere inoiz baino gertuago sentiaraz zintzaten nahi zuten, eta horregatik etxeekin harremana oso estua izaten ahalegindu dira. “LH 1-4 multzoan, garrantzia handia eman genion kontaktu bisuala izateari eta irakaslearekin harremana ez galtzeari. Hori bermatu genuen eta horretan dihardugu oraindik, egunero bideo bat bidaliz irakasleak, etxera eramandako materialarekin zer egin esateko. Egunero erronkak, jolasen gomendioak eta lan proposamenak izan dituzte. Bideokonferentzia saio batzuk ere izan dituzte”, esan du Katalin Larreak. “LH 5 eta 6an, DBHren antzeko plan teamendua egin zaie. Asteko ordutegi finkoa bat ezarri, ikasgai bakoitzean saio kopuruak eta ordutegia murriztu arren, zuzeneko konexioarekin funtzionatzen dute, eta batez ere lanak egin eta igotzeko Drive eta Alexia



Txomin Elorza

“Ikastolan irakasleak topera ari dira umeekin egoteko. Arlo guztietan ari da gure semea eta jarraipena oso ona da; bera pozik dago, zuzenean ari da tutorearekin, tutoreak azalpenak bidaltzen dizkigu nola ari den mutikoa...” MARU ERIZ, Argia ikastolako lehendakaria eta langilea

< classroom erabiltzen dute. Arratsaldeak irakasleek erabiltzen dituzte bakarreko lan estrak behar dituzten haurrekin zuzeneko harremanak egiteko”, gaineratu du.

Txomin Larreak nabarmendu duenez, edukietan moldaketak egin behar izan dituzte. “Edukietan aurrera jarraitu arren, sinplifikatu egin behar izan ditugu; ez zaude aurrez aurre klaseak ematen, eta ikasleak benetan ulertzen ari direla ziurtatu behar da. Bideoak prestatzen ditugu, eta bideoekin eta prestatutako eskema batzuekin eduki berriak aurkezten dizkiegu eta beraiek ariketak bidaltzen dizkigute. Bideokonferentziak erabiltzen dugu zalantzak argitzeko”, azaldu du. “Edukiak emateko orduan motelago goaz, baina egia dena da ikasle ia guztiek ongi jarraitzen dituztela edukiak eta ongi moldatzen ari direla, ariketak egiten dituzte... beno hori da daukagun pertzepzioa, jasotzen ari garen feedbackaren arabera”.

Irakasleen arteko koordinazioa funtsezkoa bada egoera normalean, are erabakigarriagoa da konfinamendu garaioan. “Hasieran kostatu zitzaigun eta behar bada lan karga handiegia eman genien ikasleei”, aitortu du Txominek. “Dena berria da guztiontzako, eta oso zaila da, baina koordinatzeko ere irakasleok ez gaude aurrez aurre eta ez dira baldintzarik onenak. Zuzendaritzatik oso ondo ari dira lanean, baina dena ongi egitea zaila da. Halere, ez da izango ez dugulako nahi, aritu ari garelako”, gaineratu du.

“Oporren ostean hobekuntza gisa erabaki dugu, lan proposamenak modu koordinatuan egituratzea; ikasgai desberdinetako irakasleak harremanetan jartzen dira guztiek zer bidaltzen duten ikusteko eta oreka bilatzeko”, dio, berriz, Katalinek. “Horrek guztiak irakasleentzat formazio sakona eragin du IKT tresna desberdinak erabiltzeko orduan, eta trebetasuna izugarri hobetzea. Etorkizunari begira, balio hori gurekin eramango dugu”, gaineratu du.

Katalinek ikastola komunitatearen loturak indartzeko ikastolan egin diren ekimenak ere azpimarratu nahi izan ditu. “Familiaren zentzua gehiago indartzeko, aurretik aurreikusita genituen ekimenak aurrera atera ditugu formatua egokituz: bertso bazkari birtual bat egin genuen Onintza Enbeita eta Nerea Ibarzabalekin; gaubela literarioa ere egitekoak ginen ikastolan, eta antzeko zerbait egin genuen irakasle eta familiak denok gure etxeetan; Liburuaren egunean ere irakurtzen ari garen liburuaren azalak eszenifikatzeko erronka luzatu genien ikasle eta familiei eta oso erantzun ona izan zuen. Familiatik familiara ekimena ere egin genuen: mezu positiboak betetako bideoak bidali genizkien familiei, eta mezuak bueltan jaso genituen... zoragarria izan zen familien %98k hartu zutelako parte!”

Egoera honetan hirugarren ebaluazioa nola planteatu daitekeen galdetuta, Txomin baikorra da: “Lehen bi ebaluazioak eginda daude, eta hirugarren hau egiteko informazioa badugu: guk ikusten ditugu zeintzuk ari diren lanean, zeintzuk ez... ebaluatzeko baliabideak eta informazio asko daukagu, gero ikusiko da irizpide nagusiak nola ezartzen diren. Ez dakigu oraindik zehazki. Autonomia eman digute, baina oraindik ez dugu zehaztu”.

Katalinek komunitate guztia egiten ari den ahalegina eta inplikazioa nabarmendu ditu: “Harro egoteko modukoa izaten ari da. Erantzuna bikaina ari da izaten. Egoera hau guztia kontuan izanda, hamarrekoa merezi dute!”. Gainera, pentsatzen ari dira, ebaluazioa egiteko orduan, gurasoen parte hartzea ere aintzat hartzea. “Beraiek ikusi dituzte seme-alabak lanean, eta haien iritzia ere jakin nahi dugu”, esan du.

Txominek ikasleen lan egiteko modua eta inplikazioa ere nabarmendu ditu. “Okerrena da faltan botatzen ditugula. Ez da modu erraza nola dauden jakiteko, zertan dabilzan, ongi eramaten ari diren egoera...”. DBHko ikasleak, neraberoan bete bete daudela, emozionalki nola bizitzen ari diren kezkatzen du gehien: “Gurasoengandik urruntzeko eta lagunekin egoteko behar handia duten saioan dira, eta konfinamendu garaian, berriz, justu kontra-koa gertatzen ari zaie: gurasoekin daude ia uneoro, eta lagunekin interaktuatzen dute, baina ezin dute elkarrekin egon. Ez da erraza beraientzat, eta, noski, gurasoentzat ere ez da izango”. Horregatik,



Maru Eriz

Txominek nahiko luke gutxienez ikasturte-ari amaiera emateko unean aurrez aurre edukitzea ikasleak.

ETXEETAKO ERREALITATE DESBERDINAK

Gurasoen artean ere askotarikoak dira pandemiak eragin dituen egoera berriak. Asko etxetik lanean, batzuk lantegian eta lan gehiagorekin, beste batzuk behin-behineko lanaldia etenik... Hiru gurasorengana jo dugu haien berri jakiteko.

Maru Erizek bi seme ditu, bat unibertsitate ikasketak egiten ari da Iruñean, eta bestea, txikiena, Tuterako Argia ikastolan dabil LH 6. mailan. Hain zuzen ere, ikastola horretako lehendakaria da Maru, eta bertako jangelan ere egiten du lan. Koronabirusaren ondorioz, ikastolako jangela kudeatzen duen enpresak behin-behineko lanaldi etenaldia ezarri dio. Beste jardun bat badu, ordea, eta eusten dio horri, etxetik lanean izanik ere.

“Erosketak egiteko salbu, ez gara etxetik irriteten. Normalean senarra irriteten da, beste kontu batzuk ere egiteko aprobetxatzen du eta”, kontatu digu. Lana, dena online egiten dute: “Nik lanaldi erdiz, senarrak, berriz, egun osoa eta, gainera, lana pilatu zaio. Txikiak goiz osoa ematen du ordenagailuan, ikasto-



Maru Eriz



“Etxean hala-hala moldatzen gara, ez dugulako nahi inor etortzerik gure txikiak zaintzera, eta guk egunen bat jai hartzeko zailtasun handiak ditugulako. Beraz, alabek denbora asko eman behar izaten dute etxean bakarrik”
JAVIER GOMEZ, medikua, Jakintza ikastolako gurasoa

lako lanak egiten. Tutoretzat bat izaten dute egunero. Irakaslearekin ordubeteko saioa egiten dute, eta gero etxerako lanak egiten ditu. Ondo moldatzen da, gustura dabil, eta asko ibiltzen da ikaskideekin sarean, etxerako lanak bukatuta elkarri kontsulta egiten diete zer egin duten nola egin duten... Heziketa fisikoan egunero erronkatxo bat jasotzen du. Irakasleak jartzen die erronka. Horiek grabatu eta bidali behar dituzte”.

Eguneko ordu asko ordenagailuaren aurrean: “Lau ordenagailu ditugu etxean bederen, eta alderdi horretatik ez gabiltza gaizki, baliabi-deak baditugu eta”.

Familia musikaria da Maru Erizena. “Txandak egin behar izaten dituzte, bereziki hiruek, bi semeek entsegatzeko; eta senarra, berriz, musika irakaslea da, beraz.... Neuk ere nire kontura pianoa jotzen dut, baina kaskoak jantzita. Beraz, ordutegiak zaintzen ibiltzen gara

musika entsegatzeko, eta bizilagunak ahalik eta gutxien endredatzeko”.

Etxekeko bizimoduari dagokionez, lasai egoteko eta gauza askoz hitz egiteko aukera estimatzen du gehien, seme zaharrenarekin bereziki. “Iruñean aste osoa ematen zuen eta asteburuetan askotan geratzen zen. Beraz, orain denbora asko dugu elkarrekin egoteko eta hori asko eskertzen dut”.

Zorte ona izan dutela uste du: “Ez gaude gaizki, ez garelako gaixotu, familia osoa ongi dago. Senarrak lan osoa egiten du. Ni ERTEan nago nire lanaldi batean, bestean lanean jarraitzen dut. Baina uste dut zortea izan dugula anabasa honetan. Ezin gara ke-xatu”.

Ikastolari dagokionez, esker ona azaldu du: “Ikastolan irakasleak topera ari dira umeekin egoteko. Arlo guztietan ari da gure semea eta jarraipena oso ona da; bera pozik dago, zuzenean ari da tutorearekin, tutoreak azalpenak bidaltzen dizkigu nola ari den mutikoa...”

Laburbilduz, ondo moldatzen ari direla uste du. “Noski kalera atera nahi dugu, baina ez da lehen bezala izango, dena hankaz gora dago, eta dena hain arraroa eta desberdina izango denez, korapilo bat sortzen zaizu, noiz itzuliko garen normaltasunera. Baina konfinamenduaren aurreko egoerara itzultzea zaila izango da”.

Jakintza ikastolako (Ordizia) gurasoa da **Javier Gomez**. Bi alaba ditu LHko lehen eta

“Ikastolak ordenagailua eta lan koadernoak eman zizkigun, eta Melani egunero-egunero ari da lanean. Euskara maila handia lortu du alabak denbora gutxian, eta ia dena ulertzen du. Gu laguntzen ahalegintzen gara testuak ulertzeko itzulpen automatikoak erabiliz”.
CRISTHIAN ZENALIA, etxeke langilea, Jakintza ikastolako gurasoa

lagarren mailan. Etxean egoteko asti handirik ez du, ezta bere bikoteak ere, biak medikuak baitira. Javierrek Gurutzetako ospitalean egiten du lan koronabirusak kutsatutako gaixoei. Ospitale honek artatzen ditu gaixo kopururik handiena.

“Etxean hala-hala moldatzen gara, ez dugulako nahi inor etortzerik gure txikiak zaintzera, eta guk egunen bat jai hartzeko zailtasun handiak ditugulako. Beraz, alabek denbora asko eman behar izaten dute etxean bakarrik”, aitortu digu.

“Alabei bidaltzen dizkieten lanen eta egiten dituzten bideo konferentzien gainean egon behar dugu lanetik. Eta etxeratutakoan zer egin duten eta zer ez duten egin kontrola ermaten. Eta goizetan ere deika, nola ari diren, moldatzen ari diren, norbaitek deitu al dien... Estresagarria da hein batean lana egitea eta umeak etxean edukitzea. Baina moldatzen ari gara”, erantsi du.

“Gero, lanera zoaz eta psikosi honekin zaude: kutsatuko naizen, kutsatuko dudana, zer jantziko dudana. Protokolo guztiak goitiki behera eta zehatz mehatz bete behar... Etxera iristekoan ere dutxara, arropak garbigailura...”, ofizioaren ajeak.

Umeak egokitze gaitasun handia dutela dio, halere. “Noski, egunak eta egunak daude, eta batzuetan hasten dira nekatuta daudela, aspertuta, hau noiz amaituko den galdezka... baina helduak baino hobeto moldatzen ari direla esango nuke”.

Umeek ikastola asko botatzen dute faltan, Javierrek dioenez: irakasleak, ikaskide eta lagunekin egotea. “Kalera irteteko baimena desiratzen daude, jendea ikusteko... Isolatuta daudela ikusten zaie; bideo deiak egiten dituzte baina aurrez aurrekoa faltan botatzen dute”.



Ikastolarekin harreman zuzenak izan dituzte itxialdian, eta gustura daude. “Txikiaren tuto-reak izan ditugun zalantza guztiak argitu dizkigu deitu dugun bakoitzean, oso ona izan da harremana. Zaharrenarekin, ohituagoa dago bideo deietara eta online lan egitera, eta oso ongi moldatzen ari dela ikusten dugu, eta ez dugu andereñoarekin hartu-emanetan jarri beharrik izan. Oso pozik gaude alde horretatik ikastolarekin”.

Hau luzerako doala ikusten du Javier Gomezek. “Oso luzerako”. Gizartea ere aldatu egingo dela ikusten du: “Hilabete askoan, sozializatzeko modua desberdina izango da. Eta osasungintzari begira, beldurra ematen du, birusa etxera ez ekartzeko arreta handiz ibiltzen garelako. Eta gero, aiton amonak ere hor ditugu, gurekin eta bereziki ilobekin egoteko irrikan eta alabek ere gogo handia dute aiton amonekin egoteko. Hor ere normalizaztea zaila izango du eta luzera joko du. Tamalgarria da”.

Iluntzean, balkoietatik osasungintzako langileei txalo egiten dietenean, sentipen kontrajarriak eragiten dizkio medikuari. “Alde batetik ongi sentitzen naiz, errekonozimendu bat sentitzen dudalako. Baina, bestetik, amorrupixka bat ere sentitzen dut; gure egitekoa egiten dugu, ez besterik, heroiak izan gabe. Beti egin duguna egiten jarraitzen dugu. Lehen osasun sistemaz abusatu egiten zen. Es-

pero dut, hau amaitzerakoan, herritarrek eta agintariek osasun zerbitzuari langileok ematen diogun balioa kontuan hartuko dutela. Txaloei baino balio handiagoa emango nioke errespetuz hartuko bagintuzte”

Jakintza ikastolako gurasoa da, baita ere, **Cristhian Zenalia**. Nikaragutatik etorri zen Ordiziara, eta duela bi urte eta erdi etorri zen bere alaba **Melani**. Urte gogorrak izan ziren hastapenekoak, lau urtez alaba ikusi gabe egon behar izan zuelako. Konfinamendu garaiotan lanean dabil Ordiziako etxe batzuetan. Senarrak duela gutxi lortu zuen lan egiteko baimena, eta konfinamenduaren aurretik lanean ari bazen ere, koronabirusak lanik gabe utzi du. Ikastolak ordenagailu bat eta Internet sarbidea utzi dizkio bere alabarentzat eta oso eskertua dago.

“Gogorra da egoera, baina esfortzua egiten ari gara. Melani gogor ari da lanean, etxean ikasketak aurrera eramaten. Senarra ere ari da alabari laguntzen. Egun asko igaro dira konfinamendua hasi zela, eta alaba nekatuta eta gaizki sentitzen da batzuetan, baina gero berriro animatzen da. Igandean irten zen lehen aldiz, baina prekauzio handiarekin. Beldurrik ez dio egoerari, baina prebentzio neurriak ongi ikasiak ditu eta oso arduratsu dabil kalean”, azaldu digu Cristhianek. “Hau hasi zenetik normal ari naiz lanean ni, eta ni naiz beldurra duena kutsatzeko”, gaineratu du.

“EHUn sartzeko, baxoaren nota aintzat hartu izan dute orain arte. Orain Lizeoko notak balioko dit. Baina bestelako probaren bat egin beharko dut unibertsitatean sartzeko?” AINHOA, Bernat Etxepare Lizeoko azken urteko ikaslea


“Aldaketak ez dio askorik eragin alabari. Ikastolak ordenagailua eta lan koadernoak eman zizkigun, eta Melani egunero-egunero ari da lanean. Euskara maila handia lortu du alabak denbora gutxian, eta ia dena ulertzen du. Gu laguntzen ahalegintzen gara testuak ulertzeko itzulpen automatikoak erabiliz”.

Ikastolarekin Whatsapp aplikazioa, telefono deiak eginez eta ordenagailuaren bitartez komunikatzen da Cristhian. “Tutorearekin, Garbiñerekin, zalantza txikiaren bat dudanean beti erantzuten dit, eta beti hor dagoela sentitzen dut. Bihotzez eskertzen diot alabarengatik eta gugatik egiten ari den guztia”, dio, baina eskertza ez da soilik konfinamendu garaira mugatzen. “Oso pozik eta eskertua gaude ikastolarekin. Alaba etorri zenean aldaketa bortitza izan zen berarentzat: klima, ingurua,

Christian Zenalia



Ainhoa



“Jokoan asko dugu eta ziurgabetasun honek asko urduritzen gaitu. Gainera, unibertsitateko sarrera proba ere egin beharko dugu, eta esan dute malguagoa izango dela, baina horrek onura ekarriko digu ikasketak egiteko gutxieneko nota eskatzen diguteno, ala kalte egingo digu? Bestelako neurririk hartuko dute?”, MADDI, Laskorain ikastolako Batxilergoko 2. Mailako ikaslea

hizkuntza dena desberdina zen beretzat. Pazientzia handia izan dute alabarekin irakasleek, eta bihotzez eskertzen diet”.

IKASLEEN BEGIETATIK

Ikastolako azken urtean dabilta **Ainhoa** eta **Maddi**, bata Baionako **Bernat Etxepare Lizeoan**, eta bestea Tolosako Laskorain ikastolan. Irailetik aurrera, unibertsitateko ikasketak hastea dute helburu, baina horretarako nota ere behar dute. Ainhoak Haur Hezkuntza ikasi nahi du EHUn Donostiako kanpusean. Maddik, berriz, Fisioterapia ikasketak egin nahi ditu EHUn Leioako kanpusean. Etxealdiak ikasketen azken txanpan harrapatu ditu biak, eta egoera berezi honek areagotu egin ditu lehendik ere bazituzten ziurgabetasunak.

Halere, egoerara moldatu dira. “Asko aldatu da egoera. Hastapenean zaila zen ikasketa antolatzeke, baina gero itxuratzen hasi da. Eta pixkanaka bideokonferentziak egiten hasi gara. Uste genuen konfinamenduan azterketak jarriko zizkigutela, baina azkenean esan zuten konfinamendu garaian ez direla azterketak aintzat hartuko. Dena den, lanak igortzen dizkigute eta eginda bueltatu behar ditugu, ziurtatzeko egiten ditugula”, azaldu du Ainhoak.

Maddik ere urduri pasa zituen lehen egunak. “Hasieratik hasi zitzaizkigun lanak ematen, bideokonferentziak egiten... kasik ikastolan ginenean baino gehiago. Gu, gainera, urduri geunden. Ebaluaketa amaitu berritan, azken txanpa hasi behar genuela, burua jada unibertsitate ikasketei begira jarriak, unibertsitate desberdinetako eskaintzak aztertzen eta bisitak egiten...”. Baina antolatu, antolatu zen. “Beharko!”.

Eguneroko errutina hartu eta eustea beste biderik ez. “Hasieran hiru ordu eskaintzen nizkien ikasketei goizez eta beste hiru arratsez. Gero, berriz, egunaren arabera, eguraldiaren arabera, ordutegia moldatzen joan naiz, gutxiago goizez eta gehiago arratsaldez”, azaldu du Ainhoak. Kirola egiteko irtekeko baimena hastapenetik edukita, horrek ere eragin zuen bere ordutegi moldaketan. “Egunotan denbora gehiago nahi dudana egiteko. Lehen goizeko seietan jaiki behar nuen ikastolara joateko eta seietan itzuli. Orain denbora gehiago dut irakurtzeko, kirola egiteko... Lagunekin egotea faltan botatzen dut, noski, baina ahalegintzen gara harremanari eusten telefonoz eta bideokonferentzien bitartez”.

Maddik ia hasieratik heldu dio ordutegi jakin bati. “Goizean 9:00etatik 14:00ak aldera arte egoten naiz ikasketekin, eta arratsean tarte txiki bat eskaintzen diet”. Kalera ezin du irten kirola egiteko, baina egunean hartzen du denbora etxean ariketa fisikoa egiteko, dela bideo tutorial bidez edo bere kasa. Eskubaloian aritzen da eta dantzan ere bai. Baina konfinamenduak eragotzi egin dio bere gustuko ekintza horiek egitea. Lagunekin bideokonferentzia asko egiten ditu, bai ikasketa kontuez hitz egiteko eta baita elkarren berri izan eta ongi pasatzeko ere.

Ikasketak jarraitzeko eta egunero horretan aritzeko arazorik ez dute izan. Kezka gehiago dute, ordea, itzulerarekin eta azken ebaluaketa nola egingo dieten. “Ez dakite irakasleek beraiek ere. Egingo dizkigute azterketa batzuk eta ebaluatuko gaituzte, baina era berean Frantziako Gobernuak esan du konfinamendu aldia ez dela aintzat hartuko; ikusiko da”, errepikatzen du Ainhoak. “Ez dakit nola moldatuko garen. Galdera asko daude airean eta erantzun gutxi. Eta guk nola erreakzionatuko dugu? Zer eskatuko digute? Jokoan asko dugu eta ziurgabetasun honek asko urduritzen gaitu.

Gainera, unibertsitateko sarrera proba ere egin beharko dugu, eta esan dute malguagoa izango dela, baina horrek onura ekarriko digu ikasketak egiteko gutxieneko nota eskatzen diguteno, ala kalte egingo digu? Bestelako neurririk hartuko dute?”, galdetzen du Maddik.

Ainhoak ez du Baxorik egin beharko. Horregatik pozik da, unibertsitate sarrerarako frantsesez probarik egin beharko ez duelako. Baina era berean, kezka ere badu. “EHUn sartzeko, baxoaren nota aintzat hartzen zuten lehen. Orain Lizeoko notak balioko dit. Probaren bat egin beharko dut?”

Galdera asko dituzte gazteok, eta normala da erantzun gutxi aurkitzea. Galdera asko eta erantzun gutxi dituzte, baita ere, irakasle, zuzendari eta gurasoek. Egunean-egunean erabaki berrien berri ematen dute agintariak, eta horren arabera gauzak asko alda daitezke. Denbora gutxi dago, ordea, eta ikasurtea amaitzear da.



Maddi



UDA KO AISIALDI ESKAIN TZA 2020

Ikastolen Elkartek udara begira **udaleku irekiak** antolatuko ditu, **tokian tokiko ikastoletan**. Ohiko moduan, eskaintza askotarikoa izango da, hizkuntza, adin tarte eta landuko diren gai ei dagokienez.

EMAN HEGOAK UDA IREKIAREN LEKUAK

> Haur Hezkuntza 3-5: **TXEPETXAK**

> Lehen Hezkuntza 1-3: **BIRIGARROAK**

> Lehen Hezkuntza 4-6: **MIRUAK**

Helburua

Asteko proiektu bat landuko da. Programa bereziki diseinatu da haurrek konfinamenduaren ondoren izango dituzten beharrak aintzat hartuta: naturarekin harremana, haurren arteko sozializazioa, gorputza mugitzea...

Etxean euskaraz aritzeko aukerarik ez duten haurrentzat, aukera ona da hizkuntza gaitasuna berreskuratzeko.

Aste bakoitzean landuko diren gaiak

- Natura eta ingurunea (Naturaren 4 elementuak)
- Maite ditut maite gure bazterrak
- Gorputza, mugimendua, osasuna
- Harremanak eta emozioak
- Txapela buruan eta jolastu munduan





ENJOY ENGLISH

> Haur Hezkuntza 5 - Lehen Hezkuntza 2: "A" taldea

> Lehen Hezkuntza 3-6: "B" taldea

Helburua

Astean proiektu bat landuz, haurrak taldean eta era ludiko baten, ingelesez aritzea. Ikastolen Elkarteak sortutako ikasmateriala erabiliko da.

Helburu pedagogikoak

- Ingelesezko komunikaziorako gaitasunak lantzea, jolas dinamikaren bitartez.
- Komunikazioan eragitea eta talde harremana indartzea.
- Ingelesa bizitzako egoera errealetan erabiltzea.
- Programak oinarrizko konpetentziak ere landuko ditu: elkarbizitza, elkarlana, ekimena, hausnarketa...
- Aurtengo egoera berezia dela eta, begiraleak Euskal Herriko ingeles hiztunak izango dira.

ROBOTIKA

EKAINAREN 29TIK UZTAILAREN 3RA

> Lehen Hezkuntza 5-6

Helburua

- Robotikaren arloan trebatzea eta bitarteko hauekin, opor garaiaz gozatzea.
- Pentsamendu konputazionala garatzea.
- Teknologia berriak euskaraz bizitzeko aukera berritzaileak ahalbidetzea.
- Teknologia berrietako eredu eta praktikak ikuspegi parekide batetik lantzea.



NOIZ

- Ekainaren 29tik uztailaren 30era (5 astez)
- Matrikulazioa **asteka** egin ahal izango da

NON

- Ikastolan bertan

PREZIOAK

EMAN HEGOAK
UDA IREKIAREN LEKUAK
55 €/asteko

ENJOY ENGLISH
80 €/asteko
(2. Asteetik aurrera, 70 €/asteko)

ROBOTIKA
125 €/asteko

INFORMAZIOA

- Ikastolan bertan
- www.aisialdia.eus helbidean
- 688 811 154 telefonora deituta

IZEN EMATEA

- Ikastolan bertan



ikastolenelkartea

ELKAR HARTUTA JOKATZEKO GARAIA

Guztion arteko elkarrizketen ondorioz ahalik eta neurri adostuenak lortzea da xede nagusia

Bizitzen ari garen honek guztiak eragin duenaren inguruko gogoeta egitea merezi du, eta ondorio bezala, besteak beste, zera azpimarratu nahi dugu: ezinbestekoa izan dela egoera honi erantzuteko guztion arteko elkarlana, guztiona, salbuespenik gabe. Kasu honetan ikastola komunitatea osatzen dugun pertsona eta erakundeak ez ezik, pertsonak ordezkatzeko dituzten eragile eta instituzio guztien arteko elkarlana ere beharrezkoa izan da, eta nola ez baita zeurea ere, irakurle.

EZ OHIKO JARDUN HONI ERANTZUTEKO GARRANTZITSUA IZAN DA HEZKUNTZA KOMUNITATEAZ GAIN, HEZKUNTZARI ZERBITZUAK ESKAINTZEN DIZKIOTEN ERAKUNDE ETA ENPRESAK ERE (EDITORIALAK, OSASUN ZERBITZUAK, GIZARTE LAGUNTZA ZERBITZUAK, INFORMATIKA ZERBITZU ENPRESAK, ZERBITZU OSAGARRIAK ESKAINTZEN DITUZTEN ENPRESAK...), BAKOITZAK BERE MAILAN, EKARPENA EGITEA, ETA HORRELA EGIN DUTE. ERAKUNDE PUBLIKOekin ERE ELKARLANERAKO MOMENTUA IZAN DA; UDAL EDO HERRIKO ETXE ETA UDAL ZERBITZUAK, ALDUNDIAK, NAFAR GOBERNUA ETA EUSKO JAURLARITZA.

Denok gara beharrezko, eta guztion arteko elkarrizketen ondorioz ahalik eta neurri adostuenak lortzea da xede nagusia. Adostasun horietatik elkarlana eta elkartasuna garatu beharko genuke. Bide horretan aurkitu ditugu traba nagusiak; batetik, Hezkuntza-eragileen arteko elkarlana ez da egoerak eskatzen zuen mailan egon hainbat momentutan, eta bestetik, egoera zail bezain korapilatsu honetan komunikazio eza, alde bakarreko erabakiak, ziurgabetasuna... izan dira nagusi. Kontziente gara honen guztiaren kudeaketa ez dela erraza eta alde guztiak asebeteko dituen erabakiak hartzea ezinezkoa dela; hala ere, hezkuntza eragileekin kontsultatu gabeko erabakiak hartzea eta hauek betearaztea ez dugu

uste prozedura egokia denik, gainera, gure hezkuntza sistemaren gabeziak gehiago nabarmendu diren une batean.

Ipar Euskal Herrian, gainera, ikastoletako irakasle eta langileek gurasoekin batera kudeatu dute krisia osoki. Parisek, beti bezala, aginduak eman ditu, baina inolako kontsultarik gabe eta inolako baliabiderik eman gabe ikastoletan osasungintzako langileen haurren derrigorrezko harrera segurtatzeko. Eta Hegoaldean ez bezala, ikasturte bukaera bitartean ikasgela guztiak ireki beharko ditugu, 15 ikasleko taldeekin, baina inolako baliabide gehigarririk gabe.

Honetan ardurak eta erantzukizunak ere badaude. Hezkuntza sailen presentzia faltan bota dugu, kontraste eta akordiorako mahai bat faltan bota dugu, komunikazio zuzen eta gardena faltan bota dugu... Hala ere, garaiz gaude oraindik beste testuinguru bat sortu eta guztion artean Euskal Hezkuntza sistemari egokitutako erabakiak hartzeko.

Pandemia honek guztioi gain hartu digu, ezjakintasunetik erabakiak hartu izan dira eta erabaki horien aurrean guztiok arduraz jokatu badugu ere, ondorio latzak izan ditu. Hala ere, ez dugu atzera begira jarraitu nahi, ez dugu egindako akatsetan zentratu nahi, etorkizuna irudikatu eta guztion artean eraiki nahi dugu. Asko dira egin beharko ditugun apustuak, hartu beharko diren erabakiak, erantzun be-

harko ditugun galderak... eta horiei era bate-ratu eta koordinatua heldzeko gure prestutasuna agertu nahi diogu hezkuntza komunitate osoari eta, nola ez, Hezkuntza Saileko arduradunei. Honi aurre egiteko ordua da, ausar-diaz jokatzeko garaia da eta elkarrekin jardutea ezinbestekoa dela uste dugu.

2020-2021 ikasturtea ate joka dugu, baina orain ere ziurgabetasun egoera batean kokatzen gara. Ikasturte berezia izango da berriro ere, aurrez aurreko ikaskuntza eta irakaskuntza zalantzan dagoen honetan, errealitate ezberdinak irudikatu eta horiei erantzuteko eskola antolaketa eta bitartekoak behar ditugu. Horrez gain, ikasturte honetan bizitakoaren ondorioak ere kudeatu beharko dira; maila emozional eta pertsonalean sortutako egoerak, teknologiarekiko dugun estrategiak, euskararen egoera hezkuntzan, osasun mailako prebentzioa eta bestelako neurriak, curriculum mailan egin beharreko egokitzapenak...

INDARGUNEAK BALIATU

Azken hilabeteetako esperientzia dugu honi guztiari forma ematen laguntzeko. Izandako beharrak eta hutsuneak identifikatzea eta ondo egindakoak eta indarguneak baliatzea ezinbestekoa izango da etorkizuneko hezkuntza eredua diseinatzerako orduan. Lan hau guztia aurrera eramateko denbora behar da; denbora eta lidergoa, eta horregatik uste dugu lehenbailehen ekin behar diogula lanari. Hori

da EAeko zein Nafarroako hezkuntza sailei planteatu nahi dieguna, guzti hau koordinatuko duen Hezkuntza eragileen arteko mahai bana abian jar dezatela. Udalei ere dei egiten diegu hezkuntza eragile eta herritarrek bilduko dituzten mahaiak osa ditzaten.

Hezkuntza sailek, administrazioek gidatuko duten prozesuetan, hezkuntza eragileen parte hartzea eta jarrera konstruktiboa bermatu behar dira. Ekarpenak egitea, adostutako irtenbideak aurkitzea eta irtenbide horiek zabaltzea lirarteke mahai horietako kideen egitekoak. Ikastolen komunitatea prest dago horretarako, beti bezala; Ikastolak, Ikastolen Elkartea eta gure komunitate osoa lagun izango dute go-goeta partekatzen eta irtenbideak adosteko. Elkar gaitetzen eragile guztiok ikasturte amaieratik harago asko dugu hitz egiteko eta.

Ekin diezaiozun, bada, lanari! .



Nafarroako gobernuko Hezkuntza departamendua

Hezkuntza sailen presentzia faltan bota dugu, kontraste eta akordiorako mahai bat faltan bota dugu, komunikazio zuzen eta gardena faltan bota dugu... Hala ere, garaiz gaude oraindik beste testuinguru bat sortu eta guztion artean Euskal Hezkuntza sistemari egokitutako erabakiak hartzeko



Eusko jaurlaritzako Hezkuntza saila



HONETATIK GUZTITIK ZER ATERAKO DUGU?

Pandemiaren ondorioz egin beharreko hainbat gogoeta gizarte ereduaz eta hezkuntza ereduaz

Bizitzen ari garen egoera honetan beharrezkoa da aurreko bizitza ohiturei erreparatu eta hausnarketa egitea. Etorkizunera begira jarri eta eguneroko horretatik zer mantendu eta zer ezabatu behar dugun gogoeta egitea, alegia.



KALITATEZKO BIZITZA BAT IZATEKO LAN EGITEN DUGU; GU ETA GURE FAMILIA ETA GERTUKOENAK GUSTURA ETA POZIK BIZITZEKO, OINARRIZKO BEHARRAK ASETZEKO, AISIALDIAN ARITZEKO, HARREMAN SAREAK OSATZEKO... HALA ERE, MUNDU OREKATU ETA JUSTU BAT ETA GIZARTE INDIBIDUALISTA, KONTSUMISTA, SUPERFIZIAL ETA BEREKOI BATEAN ARTEAN DAGOEN MARRA OSO FINA DELA ARGI IZAN BEHAR DUGU. Gizarte berekoi baten hatzamarretan helduta bizi izan gara azken urte luzeetan, munduko beste lurralde batzuetan gertatzen denak gugan eraginik izan gabe. Emakumeen kontrako indarkeria, haurren esplotazioa, petrolio eta ondasun naturalen kontrola irabazteko gerrak, askatasun urraketak,

korruptzioa, neurrigabeko kutsadura... Asko dira gertakari ustelak eta gure egunerokotasunaren parte dira, kontzientzia hartzea eta horietan eragitea gure esku dagoen zerbait da. Gogoetarako gai batekin itxi nahi dugu idatzi honen sarrera, gizateria sufritzen ari den momentu hauek naturarentzat arnasgunea izaten ari dira, paradoxa honek zer pentsatua ematen du.

Hau guzti hau ikasteko baliagarria izan behar zaigu. Agian ahaztuta edota beste plano batean genituen bizipen eta eguneroko sentazioak berpizteko balio behar du: familian egoitea, seme alabekin kalitatezko denbora igarotzea, behar materialetatik harago behar afektibo eta emozionaleri erreparatzea, ama lurra maitatu eta zaintzea... Familia eta ingu-

rukoen arteko komunikazio eta harremanak indarrean jartzeko baliatu behar dugu bizitzen

Eskola antolaketa, ordutegien diseinua, taldekatze ezberdinak, barne zein kanpo espazioaren erabilera... eraldatu beharko ditugu, eskenatoki berriak irudikatu eta eraiki beharko dira. Ikasleekin eta irakasleekin ere gogoeta egin behar dugu.

Guzti honetatik irtetzea kostako bazaigu ere, indartuta atera beharko ginateke, pertsona hobeak izan eta gizarte jasangarri eta justuago bat eraikitzeko. Bien bitartean, zaindu zuen burua eta zaindu maite duzuen hori.



ari garen momentua. Ildo beretik, gizarte mailan garai batean bizirik zeuden baloreak berriro hartzeko momentua izan daiteke; auzolana, militantzia, gure hizkuntza eta kulturaren alde jarduteko ezinbestekoak izan diren usadio eta ohiturak berraztertu, indartu eta berasmatu behar ditugu benetako gure printzipioekin koherente izanez. Izan ere, egoera honek lehenetsunak behar duten tokian jartzera eraman gaitu eta prozesu honetan ikastolak eredu izan behar gara. Talde bezala jokatuz gero indartuta aterako gara eta Euskal gizarteak eskertuko du.

Hezkuntzara etorrira, guzti honek aldaketa bat ekarri behar du. Hezkuntza sisteman, oro har, eta Ikastola ereduaren, zehazki, eragin behar du. Ikasleen jarraipenean, arreta pertso-

nalizatuan, zailtasunak gainditzeko irakaslearen esku hartzean, ebaluazio hezigarrian... Horrez gain, eskola zein ordutegi eta egutegiaren antolaketa eragin zuzena izan behar du. Ikasle guztiak, aldi berean, lanketa berdina egiten aritu behar dute? Espazio berdin batean denbora guztian adin berdineko ikasleak elkartzeko balio digu? Noiz? Zertarako? Ordutegi trinkoak eta arloen antolaketa ikaslearen ikasketa prozesuan laguntzen du edota eskola antolaketa errazten?... Ez dira egun batetik bestera erantzun daitezkeen galderak, hausnarketa sakona eskatzen dute, ikerketa eta ondorioetara iristea. Ondorio horietan oinarrituta eskola antolaketa, ordutegiaren diseinua, taldekatze ezberdinak, barne zein kanpo espazioaren erabilera... eraldatu beharko ditugu, eskenatoki berriak irudikatu eta eraiki

beharko dira. Ikasle eta irakasleekin ere gogoeta egin behar dugu.

Laburbilduz, garai gogorak bizitzen ari gara zalantzarik gabe. Askatasuna eta mugikortasuna kendu dizkigute eta gure osasun mental zein fisikoan eragina izaten ari da. Hala ere, aukera bezala ikusten saiatu behar gara, aldaketarako aukera gisa. Ikasle zein irakasleekin gogoeta egiteko momentua da; lehenetsunak identifikatu eta pertsona moduan hazteko baliatu dezagun bizitako guztia. Guzti honetatik irtetea kostako bazaigu ere, indartuta atera beharko ginateke, pertsona hobeak izan eta gizarte jasangarri eta justuago bat eraikitzeko. Bien bitartean, zaindu zuen burua eta zaindu maite duzuen hori.

PANDEMIAK ERAGOTZI DIGUNA

Bertan behera utzi edo atzeratu egin behar izan ditugu abian genituen egitasmo handi batzuk

Ikastolen VII. Batzarraren prestaketarako eskualdeko bilerak, ikastolen udaberriko jaiak, Ikastolen Jardunaldi Pedagogikoak eta Eskolarteko Bertso Txapelketa egiten edo egitear ginen Covid 19 koronoabirusaren pandemia lehertu zenean. Batzuk bertan behera geratu dira, besteak, berriz, atzeratu egin behar izan ditugu.

IKASTOLEN VII. BATZARRA PRESTATZEKO ESQUALDEKA EGITEN ARI GINEN BILERETAKO ASKO EGINDA ZEUELA, ETA IKASTOLEN PARTE-HARTZEA BERMATU ETA HAIETAN EZTABAIDA BIDERATZEKO IZENDATUTAKO DINAMIZATZAILLEEN PRESTAKUNTZA LANAK AMAITUAK ZIRELA, LEHERTU ZEN PANDEMIA EUSKAL HERRIAN. ONDORIOZ, PARENTESI BAT EGIN BEHARRA IZAN DUGU, ETA HELDU DEN IKASTURTERA ATZERATU DUGU PROZESUA.

Programatutako eskualdekako hemeretzi bileretatik 11 egin ziren. Beste zortziak ezin izan ziren egin. Esan behar da, dena den, oso aberasgarriak izan zirela egindako bilerak. Ikastolakideen erantzuna paregabea izan zen; gutxi gora behera 450 ordezkarik hartu zuten parte 11 bilera horietan, batez beste 40 lagunetik gorakoak izan ziren. Horrek ematen du ikastolen artean gaiak piztu duen interesaren neurria, eta, era berean, ikastolako komunitateko kideek prozesu honetan parte hartzeko duten gogoren neurria ere ematen du.

Pandemiak prozesu hau eten egin zuen, eta, era berean, Batzarrerako prestatutako egitasmoei ere eragingo die, ikasgai asko ateratzen ari garelako ezohiko egoera honetatik, eta horiek ere bildu beharko direlako hurrengo hamarraldirako erronka nagusiak zehaztu eta ikastolak haiei aurre egiteko prestatzeko.

UDABERRIKO JAIK, UDAZKENEAN

Ikastolen udaberriko jaiak ere bete-betean eragin die pandemiak. Herri Urrats, Ibilaldia eta Araba Euskaraz ez dira maiztatz-

ekainetan egingo. Jaiak eustea erabaki dute, ordea, egungo formatuan edo beste modu batean (orduko egoeraren arabera erabakiko dute), baina egiteko asmoa dute. Udazkenean atzeratu dituzte jaiak, eta orain datak eta formatuak pentsatzen ari dira, Kilometroekin eta Nafarroa Oinezekin koordinatuta.

Kilometroek ere udaberri hasierarako prestatuta zituzten Milimetroak ospakizunak ere bertan behera geratu ziren. Aurkezpena egin zuten, martxoaren 12an, baina aurkeztu eta berehala bertan behera utzi behar izan zituzten.

IKASTOLEN JARDUNALDI PEDAGOGIKOAK

Ikastolen jaiak bezala, urteko hitzordu nagusietako bat dira Ikastolen Jardunaldi Pedagogikoak. Apirilean egiten dira, eta apiril osoa konfinamenduan igaro dugu guztiok. Ondorioz, jardunaldi hauen hogeita zazpi garren ekitaldia bertan behera geratu da.

Parte-hartze handia izaten dute jardunaldiok, eta jende oso interesgarria ekartzen dute, berrikuntza pedagogikoak ezagutzeko eta gai nagusietan sarkontzeko balio izaten dute, gero, ahal dela, ikastoletara eraman eta han martxan jartzeko helburuarekin. Ikastoletan egiten diren praktika onen erakusleiko paregabeak ere badira jardunaldiok.

Pandemiak utzitako ondorioak eta ezohiko egoeratik ateratako ikasgaiak asko dira, eta ziurrenik heldu den urteko jardunaldiak aste eta hilabetean ikasi dugunaren isla izango dira.

Pandemiak VII. Batzarraren prestaketaren prozesua eten egin zuen, baina, era berean, ikasgai asko ateratzen ari gara ezohiko egoera honetatik, eta horiek ere bildu beharko dira hurrengo hamarraldirako erronka nagusiak zehaztu eta ikastolak haiei aurre egiteko prestatzeko.

ESKOLARTEKOA, BERTAN BEHERA

Otsailaren amaieran abiatu eta ekainaren bukaera aldera amaitzekoa zen aurten Eskolarteko Bertso Txapelketa, Ikastolen Elkarteak eta Bertsozale Elkarteak elkarlanean antolatutakoak. Hasi egin zen, baina hasi eta aste gutxira bertan behera geratu behar izan zen txapelketa, bai bat-bateko saioei dagokionez eta baita bertso paper lehiaketari dagokionez ere.





Iñaki Tejedor Herranz

“Ikaslea bihurtzen da bere ikaskuntza prozesuaren protagonista”

Iñaki Tejedor Herranz (Urretxu, 20 urte) Lehen Hezkuntza graduko 2.maila ikasten ari da Mondragon Unibertsitatean.

Non egin dituzu orain arteko ikasketak? Baduzu zaletasunik?

Ikasketak Urretxu Zumarraga Ikastolan burutu nituen. Haur Hezkuntzatik Batxilergora egon nintzen bertan eta esperientzia aberasgarria izan zen. Nire zaletasuna lagunekin jarduerak egitea da: bidaiatzea, kirola egitea, parranda...

Zergatik aukeratu zenuen gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?

Atzerriko hizkuntza beti izan da interesgarria niretzat. Hizkuntzak asko gustatu izan zaizkit, baina bereziki ingelesa. Honen irakaskuntzan aldaketa sakon bat egin behar dela deritzot, hobetze prozesu bat, eta hori egiteko helburuarekin aukeratu nuen gradua. Unibertsitatea aukeratzeko garaian ez nuen zalantza handirik izan. Bertan ikasten ezagun asko ditut eta horien iritziek asko lagundu zidaten.

Nola baloratuko zenuke orain arte bizitako esperientzia?

Esperientzia oso positiboa izan da eta tutoreekin sortutako harremana oso polita. Irakasle izateaz gain nire bidelagun zirela sentiarazi didate eta hori oso garrantzitsua izan da nire garapenerako. Nigan konfiantza zutela erakutsi didate eta horren ondorioz emaitza egokiak lortu ditut.

Nola definituko zenuke Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean jasotzen duzun ikasteko metodologia?

HUHEZIK pertsonalizazioan oinarritutako metodologia du, hau da, ikaslea bihurtzen da bere ikaskuntza prozesuaren protagonista. Irakasleek askatasun handia ematen digute, jarraitu behar dugun bidea zein den ongi azalduz. Balio asko ematen diot faktore horri, gure interesak kontuan hartzen dituztelako. Horrez gain, kooperatibismoan lantzen irakasten digute.



“Esperientzia oso positiboa izan da eta tutoreekin sortutako harremana oso polita. Irakasle izateaz gain nire bidelagun zirela sentiarazi didate eta hori oso garrantzitsua izan da nire garapenerako”.

Unibertsitateetik zer da gehien gustatzen zaizuna eta gutxien?

Gehien gustatzen zaidana kideekin sortzen den harremana da. Taldelan asko egitearen ondorioetako bat gure gelan dagoen harreman bikaina da. Horrez gain, praktikak egiteko eta atzerrian ikasteko dauzkagun aukerak ikaragarriak iruditzen zaizkit. Datorren urtean Txekian egingo dut lehen sehilabetea.

Gutxien gustatzen zaidana da egun bizi dugun egoerak ekarri dizkigun albo kalteak, hezkuntza graduatan egiten ari diren berrikuntza prozesuak eraikina berritzea ekarri baitu eta horren ondorioz tokiz mugitu behar izan dugu.

Errealitatearekin lotura dute ikasketek?

Bai, noski. Irakaslearen lana etengabe berritu behar den zerbait da: gizartearen erritmo berdina jarraitu behar du, umeez dituzten beharrei erantzun bat emateko. Honen ondorioz, gure ikasketek errealitatearekin oso lotura zuzena dute: eguneroko bizitzan eskolan sortu daitezkeen erronkak, zalantzak, gatazkak, egoerak, etab. lantzen ditugu. Gaur egun ikasten ari naizen teoria hamar urte barru ezin izango dut guztiz erabili, nire irakasle profila etengabe eraberritu behar izango du dalako.

Etorkizunari buruz zeintzuk dira zure asmoak?

Hezkuntzan lan egin nahi nuke. Nire lehengo helburua lehen hezkuntzan ingeleseko irakasle izatea da. Hala ere, ez dut aterik iten. Oso interesgarria iruditzen zait DBH edota batxilergoan irakasle izateko aukera. Unibertsitatean irakasle izatea ere ikaragarri gustatuko litzaidake. Baina, nork daki? •

1 / 6

Zenbaki hau produktuen arriskuaren adierazgarria da, 1/6 arrisku txikiaren adierazgarria izanik eta 5/6 handienarena.

LABORAL Kutxa Kreditu Entitateen Gordailuak Bermatzeko Fondora atxikita dago, 2011ko urriaren 14ko 15/2011 Errege Lege Dekretuak aurreikusitakora. Fondo horrek gaur egun bermatzen duen gehieneko zenbatekoa 100.000 eurokoa da gordailugile bakoitzeko.

super
BAT

SUPER BAT KONTUA

super bat haurren hiru ezaugarriak:

JOSTALAR:AK

Ezin hobeto pasatzen dute SUPER BAT Katalogoak eskaintzen dien guztiarekin*

AURREZTAILEAK

SUPER BAT kontuak, 16 urtetik beherakoentzat, aurretzen eta gozatzen irakasten die aldi berean, eta, gainera, erabateko malgutasunarekin eta komisiorik gabe.

SOLIDAR:OAK

Egoera ahulean dauden haurrei laguntzen diete.



LABORAL
kutxa

*Katalogo honetan agertzen diren elementuak gauzako ordainsaritzat hartuko dira, eta dagokien zerga ezarriko zaio. Ez dago eskudirutako ordainsaririk.